

uk

120. zenbakia / 2007 ekainak 4



Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Astrabudua, 1962-2007.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 9. ERRETRATUA. Unai Ardeo. A. M.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Maskarada Lamiakon, Asier Mentxaka.
- 28. ARGAZKIA. Hormaza ardaoak, Getxoko Udal Liburutegia.
- 30. BERBETAN. Iñaki Barcena, Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. Eskualdeko argazkilarien talde erakusketa.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Denboraldi amaiera. Oskar Fernandez zutabea.
- 43. MUSIKA. Getxoko blues jaialdia. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Maiatz aldizkariaren 25. urteurrena. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLA. Euskal selekzioen aldeko jaiak Erandion.

EUSKARAZ

- 46. ELKARRIZKETA. Asisko Urmeneta, Oiane Moran.
- 47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoaren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Cafe Cream tabernara.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Algortako ehiztariak 1967an, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Arkaitz Gartzandia, Maitane Nerekan.

Azaleko argazkia: Portu Zaharra 1935 aldera (Getxoko Udal Liburutegia)



31 Iñaki Barcena



11 Unai Ardeo

Berbetan


Erandioztarra, EHUko irakaslea, gazterik hasi zen antimilitarismoan, eta luze gabe igo zen ekologismoaren ontzira.



34 Fotografia



46 Asisko Urmeneta



54 Arkaitz Gartzandia



14 Laura Lapeyra

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu


e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

etorri
eta
ikusii!!

liburudenda

Alangoeta 8 (Euzko Herria kalearen bukaera)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



XIX

FESTIVAL INTERNACIONAL
DE GETXO
GETXOKO
NAZIOARTETKO JAIALDIA

Ostirala 8 Viernes
**HASH +
SHERMAN
ROBERTSON &
BLUES MOVE**
21.30 h.

Larunbata 9 Sábado
BUDDY GUY
21.30 h.

Igandea 10 Domingo
ZORA YOUNG
20.00 h.

Junio 07 Ekaina
Plaza Sta. Eugenia
ROMO (Getxo) BIZKAIA
sarrera dohainik
entrada libre

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea

HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kuxka 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERRREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Maitane Nerekan

FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bitor Egurrola,
Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itxaso Arana,
Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra
Lepoan Euskaraz Elkartea.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko
herri aldizkari eta euskara elkarten
Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Gehiago


Hauxe duzue UKren 120. zenbakia. Udal hauteskundearen biharamunean idazten ditugu lerro hauek. Eta jakina, danon ahotan dabilta hauteskunde hauen emaitzak. Zer gertatuko da Getxon? Zein alderdikoa izango da hurrengo alkatea? Eta Sopelan? Ez dira gutxi izan hauteskundearen emaitzak ikusi eta gero UKren etorkizunaz euren kezka luzatu diguten lagunak. Getxon beste kolore bateko alkate batek orain arte bezala lagunduko luke UK? Ez lituzke dirulaguntzak murriztuko? Ez dakigu. Gu bitartean, egiten dakiguna, eta egiten gustatzen zaiguna egiten segituko dugu. Hau da, eskualdeko euskaldunentzako aldizkaria.

Eta ez hori bakarrik. Badakizue ipurterreak bagarela eta UK ezezik bestelako gauzak egiten saiatzen garela (posterrak, diskoak...) ahal izaten dugunean. Bada, oraingoan itzelezko mobida berrian sartu gara. Mobida hori GetxoPhoto deituko da. Eta hori zer izango da? GetxoPhoto irailerako antolatu dugun jaialdi fotografikoa da, jarraipena izatea eta aurrerantzean urtero ospatzea nahi dugun argazki-festa. Labur labur esanda, herria argazkiz bete nahi dugu egun batzuz. Aldi berean hogeibat argazki erakusketa paratu nahi ditugu, gehienak kalean. Prestaketa lanetan buru belarri gabiltza orain.

Hurrengora arte.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

gogoan >

Sorne Unzueta "Utarsus" kalea zabaldu dute Getxon



Sorne Unzueta iruzuruz gehiago jakiteko: http://www1.euskadi.net/euskara_sustapena/bidegileak/datos/SORNE%20UNZUETA.pdf

Getxoko Benantzio inguruko kale txiki bati Sorne Unzueta *Utarsus* izena ipini berri dio Udalak. Itzal handiko emakumea izan zen Sorne Unzueta euskaltzalea. Bizitza luze (104 urteagaz hil zen) eta oparoa eduki zuen. Euskal Herriko XX. mendearen hasierako mugimendu abertzalearen erakusgarri bete-betekoa dugu. Irakaslea, Emakume Abertzale Batzako, idazlea eta politikako hizlaria izan zen. Hori dela eta, bizitza gogorra suertatu zitzaion, baina beti atera izan zen aurrera, berak behin baino gehiagotan zioen bezala: "*Una brisa me conmueve y el huracán no me abate*". Esaldi horrek ondo erakusten du Sorneren izaera, indarra eta sentiberatasuna bat eginda.



GETXO, 2007KO MAIATZAREN 19A

Herrien Jaialdia / Itxas Argia Dantza Taldeak antolatutako jaialdian hartutako irudia da goikoa. Bertan Getxoko neska-mutilekin batera, Aragoiko eta Danimarkako dantzariak ikusteko aukera egon zen. Argazkikoak, antzinako pelikula batetik ateratako pertsonajeak ematen dutenak, Europako iparraldetik etorri ziren gurera dantza egitera. Urteek ez dute barkatzen, baina, goikoak ikusita, dantza arima eta gorputza gazte mantentzeko antidoto ona dela argi dago. ○ / Argazkia: **Asier Mentxaka**

PAYAdoreak

Argentina eta Euskal Herria

bertso kantari

Wilson
Saliwoncyk
payadorea

Fredi eta Xabier
Payatarrak



ekainaren 7a, osteguna - The Piper's Irish Pub - 20.00etan



[lehen]

ERWINDKO UDALA - TWAKUZELO BIDEA



[orain]

ASERIBETIKKA

Iraganez doa denbora* beti / ASTRABUDUA 1962-2007

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > botoen ajea



Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

I
Hauteskundeak amaitu dira, itxi dute pasarela, herri gehienek berriro hartu dute lehengo top-modela. Botoak gora, botoak behera, portzentaien erregela, Plentzia eta Getxo kenduta dena dago lehen bezela: izango al da gauden moduan guztiak pozik gaudela?

II
Plentzian PP molda liteke independenteen neurrira, seguru Getxon ere ez dela "euzkaltzaleez" gupida: popular eta sozialistak batuko baldin balira... baina hurbilaz hausnartu nahian urrutiarri begira, Madrilen etsai direnak Getxon baketuko ote dira?

III
"Irabazi dut", "Garaile gara", "Gure taldea da giltza", herria xede baino gehiago ez ote dute baldintza? Beste lau urte kezkarik gabe bizi nahian bazabiltza, gogoan izan unerik une egiten dela bizitza, botoa eman duzula baina zugan dagoela hitza.

* Doinua: Sentimendua sartu zitzaidan

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



bisita > Santurtziko Bihotz Gaztea Ikastola UK-ko erredakzioan



Joan den maiatzaren 2an bisitatu zuten gazteek UK-ko lantaldea

Joan den maiatzaren 2an, UK-ko erredakzioa bisitatu zuten Santurtziko Bihotz Gaztea Ikastolako DBH 3. mailako ikasleek. Berton, aldizkaria egiteko beharrezkoak diren pauso guztien lekuko izan ziren. Ikasturtean zehar, elkarrizketak eta artikulatuak zelan egiten diren landu dute irakasleagaz eta gurean kazetari lana bertatik bertara zelan egiten den ikusteko aukera eduki zuten. Ikasleek adi-adi entzun zituzten UK-ko kazetarion azalpenak. Aldizkariaren historia eta bilakaera, maketazioa, argazkigintza, informazio iturriak, publizitatea, inprimatzea, atalak, finantzaketa eta banaketa izan ziren erredakzioan jorratutako gai nagusiak. Alde egin baino lehen, eta hartzen ditugun bisitakaz ohikoa denez, oroigarri moduan argazki ederra atera zien gazteei gure argazkilaria. Eskerrik asko zuen bisitagatik eta hurrengora arte! ○

getxo > txakurren gorotzak batzeko kanpaina abian da



Algortako Gainza lorategia

Asteotan txakurren gorotzak ez batzeak eragin ditzakeen arazoez jabetzeko hainbat ekintza antolatu du Getxoko Udal Ingurumen Arloak. Daborduko, txakurrak ibiltzen diren 10 bat lorategitan plastikozko zintak ipini dituzte, *Gune Kutsatua. Zure txakurraren gorotzak jaso itzazu. Gaixotasunak eragin ahal dituzte* lemapean. Aldi berean, Udalak iragarkia ipiniko du telebistan eta erroldatuta dauden txakurren jabeen eskuorria helaraziko die posta elektronikoko bidez. Helburua herriko berdeguneetan txakurrik ez egotea ez dela azpimarratu dute udal ordezkariak, baina gorotzak ez batzea zigor daitekeela gogoratu gura dute. Animalien hondakinek gaixotasunak eragin ditzaketela diote eta umeez kalte handienak jasotzen dituztela nabarmendu. Beraz, ahalik eta pertsona gehien arreta erakarri gura du Udalak. ○

saiaz getaria
HOTEL


Roke Deuna
25
280808
Getaria

...haria ...lehengo garaiek... ...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143



irakurzaletasuna > liburuak eskainiko dituzte Getxoko tabernetan



Laster ez da arraroa izango traguaz gain, jendea tabernetan irakurtzen ikustea


Ehun bat liburu banatu ditu Getxoko Udalak herriko hainbat tabernetan. Auzokideen artean irakurzaletasuna bultzatzea da ekimenaren helburua. Horrela, lokalean bertan irakurri edota etxera eroan ahal izango dituzte bezeroek liburuok. Era berean, udalerriko liburutegien eskaintza ezagutarazi gura dute egitasmoaren bultzatzaileek; izan ere, liburutegiak izan dira obrak aukeratu dituztenak. Iaz, kanpainiak 15 egun iraun zituen, baina eduki zuen harrera ona ikusita, tartea luzatzea erabaki du Udalak. Gainera, liburuak ez dira publiko mota bakar bati zuzenduta egongo eta umeez zein nagusiez gozatu ahal izango dute. Horretarako, adin ezberdinetako lanak estilo ezberdinetako bezeroak hartzen dituzten lokaletan banatuko dituzte. Era berean, euskaraz zein gaztelaniaz irakurtzeko aukera egongo da. Beraz, udabarri honetan ez da arraroa izango traguaz gain, jendea tabernetan liburuak aukeratzen ikustea. ○

urteurrena > San Nikolas ikastolako skautek 30 urte betetzen dituzte



Berde eta zuria zen Ikastolako skauten pañoleta

Aurten Algortako Ikastolako skaut taldeak 30 urte beteko lituzkeela ikusita, zorion jaia antolatzea erabaki dute San Nikolaseko ikasle ohiek. Hartara, taldeko kide izandako guztiei zuzendutako jatekoa antolatu dute, beraz, ikasle zein begirale bezala bertan ibilitakoa izanez gero, gonbidatuta zaude. Ekainaren 23an, San Juan bezperan, izango da hitzordua, 9:00etan. Eguna hasteko, txangoa egingo dute Uribe Kostan zehar eta eguerdian, berriz, bazkaria San Nikolas ikastolan bertan. Parte hartu gura duenak posta elektronikoa zlandaluze@hgc.es helbidera bidaltzea eskatzen dute antolatzaileek; bertan, izen-abizenak eta joango den lagunen kopurua argituz (bai ibilaldira zein jatekora). Informazio gehiago eskuratzeko ere helbide elektronikoko horretara jo. Animatu zaitetz eta parte hartu! ○



Unai Ardeo > Getxoko Herri Kirol Taldearen ordezkaria

Sasoi onean mantentzen da Unai Ardeo algortarra, izan ere, lanak forma onean egotea eskatzen dio. Heziketa fisikoko eskolak emateari utzi eta suak itzaltzeari ekin zion 2000. urtean. Bere lana gustuko du: *“Mugitzeko aukera ematen dit, dinamikoa da; gainera denbora libre asko daukat”*. Ez du uste arriskutsua denik: *“Autoan ibiltzea ere arrisku handia da”*. 1996an Getxoko Herri Kirol Taldea sortu zuen lagun batzuekin batera eta gaur egun taldeko ordezkaria da: *“Kooperatiba antzeko bat sortu dugu; paperak banatu ditugu, baina lana denon artean egiten dugu”*. Herri kirolak ezagutarazi eta gazteen artean horien praktika bultzatu gura dute: *“Erakustaldiak antolatzen ditugu jendeak gure herriko kirolak ezagutu dituzan; kutsu ludikoa eman nahi diogu eta lehia alde batera utzi”*. Txingak, ingude... bat aukeratzea zaila egiten zaio: *“Beharbada sokatira dut gustukoan: talde bat bestearen kontra, lur gainean...”*. Txikitatik oso sartuta egon da kirola Unairen bizitzan, beharrezkoa du: *“Niretzat desestresa da eta gainera lagunekin egoteko aukera ematen dit”*. Herri kirolak hori baino zerbait gehiago dira: *“Kirol asko probatu ostean gehien gustatzen zaidana aukeratu dut: gure betiko kirolak praktikatzeari”*. Amaitzeko gonbidapen bat luzatu nahi izan digu Unai: *“Nahi duenarentzat, Andra Mariko probalekuan entrenatzen gara astero”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

cianoplan **Reprografía**

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Antigua Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •

Imprimatze eta plano kopiak •
Kartelak kolorez eta z/b •
Fotokopiak kolorez eta z/b •
Era desberdinetako koadernaketak •
Plastifikazioak •
Cd eta DVD grabaketak eta inprimaketak •
ermarkaketak •



Euskara, bestela ez gara!

EGIZU Getxo Euskaldun euskara elkarteak bere ibilbidearen nondik norakoen eta **datozen erronken** berri eman du; **euskararen erabilera bultzatzeko** helburuari indartsu eutsiz!

Oro har udalerrian euskararen erabilera bultzatzea helburu duen **EGIZU** elkarteak orain dela 7 urte sortu zen. Apurka handitzen, hedatzen eta sendotzen joan den ekimena da, urtero ekimen berriak eskainiz hazi da, egitasmo berriak martxan jartzen egonkortu da, euskaldun diren eta izan gura dutenen arteko zubi-lana egiten heldu da, euskara erabiltzeko bilguneak eta bidegurutzeak sortzen jardun du... Euskaraz bizi gura dutenen taupadak elkartuz, Getxo ere euskaldun izan dadin.



EGIZUren berbalagun taldea denboraldi hasieran

EGIZUtik azaldu dutenez, euren asmoa ondorengoa da: "Euskararen erabilera bultzatu eta euskal komunitatea indartu nahi dugu, Getxo berreuskalduntzeko", hau da, Getxoko komunitate euskalduna sendotzea eta hedatzea da euren helburua, "euskararen erabilera areagotzeko denok dugulako zer eman eta zer jaso". EGIZU hurrengo eragileek dihardute elkarlanean: Bizarra Lepoan euskara elkarteak, Jose Antonio Agirre euskaltegia, Lauaxeta euskaltegia eta Getxoko Udal euskaltegia; gainera, Udal laguntza ere jasotzen du elkarteak. Horren albotik, oraintsu sinatu du Udalak Egizure-kin lankidetzaren hitzarmena eta 12.846 euro zuzenduko ditu elkarteak euskararen erabilera sustatzeko jarduerak antola ditzan.

Helburuak lortzeko hainbat programa dauka martxan EGIZUk, esaterako: Berbalaguna eta Kultur Jarduerak. Ostera, beste ekimen batzuk ere bultzatzen ditu: Irakurzailearen Txokoa, Gazte Saltsa, kirola

euskaraz egiteko... Berbalaguna eta Kultur Jarduerak egitasmoak bi noranzko bidea dira: euskaraz dakitenek erabil dezaten eta ez dakitenak euskararen mundura hurbiltzeko, euskara dakitenek eta euskara ikasten dabilzanek elkarri laguntzeko eta elkar ezagutzeko, euskararen mesedetan. 100 bat berbalagunek jardun dute aurten eta 14

«1.000 lagunek baino gehiagok parte hartu dute antolatutako jardueretan»

talde sortu dira "astean behin, tabernan, kalean, plazan euskaraz berba egiteko". Horrez gainera, beste ekimen batzuk ere antolatu zituzten iaz, 20tik gora, berbarako: diaporamak, ipuin kontaketa, hitzaldiak, ikastaroak, lantegiak, asteburuko irteerak, lehiaketak... Horietan guztietan mila lagun bai-

no gehiagok parte hartu dutela jakinarazi dute EGIZUkoek. Bestalde, Euskal Herri osoko 50 elkartegaz elkarlanean jardun dute. Aurrera begira jarduera gehiago eskaintzea eta partehartzaileen kopurua handitzea dira erronkak. Kirola, literatura, kultura... azken finean, bizitza bera, euskaraz nahi duenarentzat lan egiten jarraitzea. EGIZUk akordura ekarri duen esan oinarriturik, "euskaraz, bestela ez garelako". ○

- 20 jardueratik gora antolatu zituzten iaz
- 100 berbalaguneko taldea
- 1.000 partaide baino gehiagok gozatu dute ekintzez
- **Harremanetarako:** Karitate kalea 1, 10. bulegoa, Algorta 94 491 43 57- 619 935 541 egizugetxo@yahoo.com www.blogari.net/egizu

Getxo Antzoki berria 2011rako zabaldu eta 22 milioi euro zuzenduko duela dio Udalak



Erdisotoan erabilera aintzeko aretoak leudeke, eta aretoak bata bestearekin lotu ahalko liriteke

Getxo Antzoki berrirako aurreproiektua aukeratu eta onartu du Tokiko Gobernu Batzarrak. Gabon aldiaren edo itxiko ei ditu Antzokiak ateak eta udal arduradunen esanetan azpiegitura berria 2011rako edo zabalik egongo da. Eraikin berriak 7.000 metro koadroko azalera beteko du eta Udalak 22 milioi euroko zenbatekoa zuzenduko du egiteko horretarako. Aurreproiektuaren arabera San Nikolas plazak eta Getxo Antzoki aurreko enparantzakoak bat egingo lukete.

Aurreproiektuaren arkitekto taldeko Luis Uriartek jakinarazi duenez, "egurra eta altzairua proposatu ditugu eraikinerako arrantzon-

tzi eta merkatal ontziak egiteko gure tradizioan oinarri hartuta; auditorioaren kanpo aldeak altzairu ugergaitz beltz mate urdinxka, egur eta beirazkoa izango da eta barru aldeak zedro-egurrezkoa". Antzokiko auditorioak 892 lagunentzako lekua luke eta atariak goranzko joera, goitik Abra ikusi ahalko da. Atariaren maila ezberdinetan leudeke besaulki-patiorako eta goi-anfiteatroko sarrerak, baita bi mailako erakusketa aretoa eta kafetegia ere. Bestalde, erdisotoko mailan leudeke Musika Eskolako auditorioa (206 lagunentzako), entsegu aretoa (238 lagun) eta bestelakoak (zinerako adb.; 255 lagun). ○

OSTALARITZA HEZKUNTZA ZENTROA FADURAN

Lehen Fadura edaritegi/jatetxea zegoen lekuan (erretegia ez, hori Fadurako kirol azpiegiturara lotuko dute) Ostalaritza Hezkuntza Zentro bat eraikitzeko asmoa du Udalak. Zentroa lan merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenei prestakuntza emango dion enpresa batek kudeatuko du. Udalak proiektua idazteko 70.000 euro zuzendu du, Aldundiak 700.000 euro ematea hitzartu du.

EGOITZA ITXI IZANA UKATU DU ZARRAOAK

Andra Mariko Auzotarren elkarteak 1978tik zuen egoitza Udalak itxi izanari zera erantzun dio Getxoko alkate Iñaki Zarrakoak: "Elkarte horrek ez du lokala erabiltzeko baimenik, gutxienez 1995etik; eurak dira legez kontra eta indarrez udal leku hori okupatu dutenak". Zarrakoak esan duenez "lokala beste batzuei utzi genien eskatu zutelako; elkarte horretako kide batzuek beren kabuz lokalaren sarraila aldatu eta lokala erabiltzeko baimena zuten taldeak egun batzuetan kalean utzi giltzarik ez zutelako". Kartela ere elkarteak bere kabuz jarri zuelako kendu zutela adierazi du. Horrela salatu zuen Iñaki Zarrakoak Andra Mariko auzokideen elkartearen udal lokal batzuetan legez kanpo sartu dela.

BIDEZKO MERKATARITZA AZOKA, HILAK 4-9

Emaus Gizarte Fundazio GGKEak orain dela hilabeta batzuk Erromon antolatutako azoka berri ere egingo du, baina oraingoan Algortan. Hilaren 4tik 9ra egingo den azokan kakaoa, kafea, juka, kinua... erosteko aukera egongo da.

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

www.seminuevosengetxo.com

BILBO BERRI
Bizkerre, s/n - ALCORTA. Tel. 94 430 68 81

LIBURUAK TABERNETAN DAUDE IRAKURRI'07 KANPAINAREN EKIMENEZ

Bigarren urtez atxikitu dira Getxoko Liburutegiak Eusko Jaurlaritzak bultzatzen duen Irakurri 2007 egitasmoari. Irakurtzea bultzatzea helburu duen kanpainaren barruan 100 liburutik gora (euskaraz eta gaztelaraz; haur, gazte zein helduentzako literatura) banatu dituzte liburutegi getxoitarrek herriko lau taberna eta mintzategi baten artean. Liburuak lekuan bertan irakur daitezke edota maileguan hartu, azken hori eginez gero, irakurri ostean hartutako lekura edota liburutegira itzultzeko betebeharragaz.

HILAREN 10EAN OSPATUKO DA GORPUZTI EGUNEN JAIA

Ohi legez Portu Zaharreko Etxetxu plazak hartuko ditu Corpus Eguneke ekitaldi nagusiak. Eguerdiko mezagaz hasiko dira ekitaldiak eta horren ostean Biotz Alai abesbatzak entzundaldia eskainiko du (13:00). Sardinadagaz gosea ase eta gero, arratsalde partean (19:00) Los Cinco Bilbainos taldearen kontzertuagaz gozamen hartzeko aukera edukiko dute bertaraten direnak.

GETXOARTEN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK DAGO

Dagoeneko zabaldu du Kultur Etxeak aurtengo Getxoarte Arte Sortuberrien Aretoan izena emateko epea (urriaren 11ra arte). 54 artistek izango dute Areetako karpapean egingo den ekimenean parte hartzeko aukera. Aurten, gainera, Getxoarte ez da ohiko datetan egingo, atzeratu egin dute apur bat eta azaroaren 30tik abenduaren 2ra egingo da.

Informazioa: www.getxo.net / 94 491 40 80

V. Txotxongilo Eguna

Getxon egingo da **hilaren 15etik 17ra**; hamaika ikuskizun, azoka txikia, lantegiak... izango dira



Informazio gehiago: www.txotxongilo.com

Orain dela sei urte ospatu zen lehenengoz Txotxongilo Eguna Abadiñon, bigarren (2003) eta hirugarren (2004) ekitaldiak Getxon egin ziren eta ia zkoa Sondikan. Aurtengo ekimenerako UNIMA Euskal Herria elkarteak berriro ere Getxo aukeratu du. Txotxongiloak eta antzerkia oinarri dituen jaiak hiru egun iraungo du, ekainaren 15tik 17ra. Txotxongiloen antzerki ikuskizunaz gainera, aurten hainbat berrikuntza izango ditu Txotxongilo Eguna: UNIMA Euskal Herria Gala, Txotxongiloakaz Berbaldiak, artisauen azoka txikia eta Yorick liburu-denda berezituaren liburu eta lanen etxola ere ipiniko dute. Horrez gainera, Mundu osoko txotxongiloen argazki erakusketa (Nati Cuevas, Erromoko kultur etxea, hilak 11-17), txotxon-

giloak egiteko lantegiak (Rafa Villa margolari getxoitarra eta Maribel Tenak emango dituzte), eta Arte Ederretako Sortzen taldeak aurpegi veneziar irudiz margoztuko diote hala gura duenari.

Euskal Herriko 11 txotxongilo antzerki taldek parte hartuko dute Galan (hilak 16, 21:00) eta Jordi Bertran ezagunaren *Ofelia* ikuskizunaz aparte (Santa Eugenia plaza, hilak 15, 20:00) 14 talderen antzerki lanakaz gozatzeko aukera egongo da goizez zein arratsalde (Areetako Geltoki plaza, Andres Isasi Musika Eskola, Santa Eugenia plaza eta San Jose eliza, hilak 16-17). Lantegiak Areetako Geltoki plazan eman go dira (hilak 16 eta 17) eta azoka eta gainontzeak Ibaiondo kalean egingo dira. ○

Laura Lapeyra > Zabala ikastetxeko Guraso Elkarteak kidea

“Ikasleen artean euskara sortzea eta euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea dira helburuak”



Informazio gehiago: www.ampazabala.net

Algortako Juan Bautista Zabala ikastetxeko Guraso Elkarteak “Euskara Zabaltzen” programa martxan ipini du aurten. Euskararen erabilera eskasa zela nabarituta hainbat ekintza antolatu dituzte ikasturtean zehar: ipuin-kontaketak, Txiki Txokoa, kantu saioak...

—Zergatik erabaki du Guraso Elkarteak programa hori martxan ipintzea?

—Gure eskolan betidanik nabaritu dugu euskararen erabilera eskasa, ikasleen familia gehienak erdaldunak dira, orduan, ez daukate euskaraz egiteko ez erraztasunik ezta ohiturarik ere. Hori izan zen antzeman genuen arazo larriena, eta horretaz aparte, batzuetan euskararekiko jarrera ez da guk nahi izango genukeen bezain ona, eta hori gurasoengan ere nabarmena izaten da. Horrek guztiak bultzatu gintuen iaz ikasturte amaieran Gernikako baserri-eskola batera irteera bat antzolatzea. 70 ume eraman genituen eta esperientzia oso polita izan zen, eurentzako aberasgarria eta joan ginen lauzpabost gurasoentzat ere. Horri jarraipena emateko asmoz, aurten proiektu bat landu dugu eta Getxoko Udalak diru-laguntzak ematen dituen egitasmoa aurkeztu genien; laguntzak edukita errazagoa da, bestela jendeak ez

du ordaintzen horrelako gauzak egiteagatik. Gurea ikastetxea publikoa da, ez du eskolaz kanpoko jarduerarik eskaintzen, horrelakoak guk antolatzen ditugu. Programa hau eskolaz kanpoko ekintzen barruan sartu genuen, eta hileroko ekintza ezberdin bat prestatzen dugu.

—Zeintzuk dira helburu nagusiak?

—Ikasleen arteko harremanetan euskara sortu; egunerokoa euskaraz bizitzeko aukera eskaini; euskararekiko jarrera hobetzea bai ikasle eta batez ere gurasoen artean, euskal kultura hurbiltzea... Horiek lortzeko ekintzak antolatu ditugu: baserri-eskolako egonaldia aurten ere errepikatuko dugu ekainean Gipuzkoa aldean; urtarilean ipuin-kontalarien emanaldia prestatu genuen eta ipuin lehiaketa bat ere bai, Bizarra Lepoanekoek osatu zuten epaimahaia eta Unai Elorriaga izan zen sari banaketan; martxoan txikienezko Txiki Txokoa eduki genuen bazkalosteetan eta 2 kantu saio egin ziren “Zabala Kantuan” izenpean, horretan gurasoek parte hartzeko aukera gehiago izan zuten; maiatzean Euskal Jolasak egon dira. Pozik gaude parte-hartzearekin baina gehiago lortzea espero dugu.

—Eta datorren urterako proposamenik?

—Aurtengo bidetik jarraitzea, eta ekintza gehiago antolatzea da asmoa; ez dago ezer zehaztuta baina ideiak baditugu, adb: ipuin-kontalariak, antzerki lanak, zapatu batzuetan

«Diru-laguntza beharrezkoa da horrelako gauzetarako, bestela zaila da»

ekintzak egitea... Ideiak gauzatzeko, baina, laguntza behar dugu.

—Diru-laguntzarik jasoko al duzue?

—Atez ate ibili gara: Udalak eman digu; Aldundian eskatu eta ez ziguten eman, BIGEra (Guraso Elkartearen Federazioa) jotzeko esan ziguten, horiek iaz laguntza ematea onartu zuten, oraindik jaso ez duguna. Diru-laguntza beharrezkoa da horrelako gauzak egiteko, bestela oso zaila da, laguntza dugun bitartean jarraituko dugu hau bultzatzen. ○

Gizarte

Zerbitzuen hamar erabilzaitetatik lau etorkinak dira

Gizarte Zerbitzuek aurkeztu berri duten urteko oroitza-txostenean oinarrituz Iñaki Urkiza zinegotziak azaldu duenez “*iaz Gizarte Zerbitzuen erabilzaitzaileen %39 etorkinak izan dira*”. Getxoitarren %6 etorkinak dira eta horregatik da aurreko datua hain adierazgarria Urkizaren esanetan: “*Gizarte maila baztertuago baten kide izateagatik dituzten zailtasunak handiagoak dira, euren diru-sarrerak batez bestekoaren azpitik daude; gainera, Getxoko betiko biztanleei baino lotsa gutxiago ematen die laguntza eskatzeak*”. Halere, Urkizak argi zehaztu du batzuen eta besteen laguntza eskatzeko betebeharrak berdinak direla, eta etorkinek urtebetez Getxon erroldatuta egon direla egiaztatuta behar dutela. Oro har, eskatzaileen %56 andrazkoak izan ziren. Bestalde, Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskariak behera egin zuten, baina eskatzaileei denbora gehiago eskaini zitzaizkien. Emakumeen Jabekuntza Eskolako ekintzak ere aipagarriak dira, iaz 203 lagunek parte hartu zuten. Amaitzeko, Gizarte Zerbitzuak lankidetzan diharduten elkarteentzako udal laguntzak aurten %25 igoko dira eta 80.000 euro banatuko dituzte. ○

ALERGIA




CRISTIAN AMEZAGA
MEDIKU ALERGLOGOIA

ASMA
ERRINITISA
URTIKARIA
KONJUNTIBITISA

MEDIKOSTA

IMO-SANITAS-MAPFRE
ALGORTAKO ETORBIDEA 96
48991 ALGORTA
94 460 98 45

PPS-106-06



Basurto

Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Anton Erkoreka > Medikuntzaren Museoko zuzendaria

“Ondare oso aberatsa daukan museo pobrea gara”

Leioako kanpuseko Medikuntza fakultatean dago Euskal Herriko medikuntzaren historiaren inguruko museoa. Bertan, ikasleek betetako gelen artean ezkututa, gure historiaren zati diren milaka altxor gordetzen ditu Anton Erkoreka zuzendariak. 1982an ireki zituen bere atek museoak, Jose Luis Goti doktorearen ekimenez. Aurten, beraz, 25 urte betetzen ditu eta UK-ko orriotara ekartzea pentsatu dugu, gertakari garrantzitsu horren inguruan apur bat gehiago jakiteko.



Argazkian, Anton Erkoreka

—Zelakoak izan ziren museoaren hastapenak?

—70eko hamarkadan hasi ziren medikuntzaren historiari buruzko mintegia fakultatean martxan jartzen. Orduan zegoen irakasle batek, Jose Luis Goti doktoreak, sortu zuen Euskal Medikuntzaren Mintegia. Orduan gela batean batzen ziren medikuak, ikasleak, irakasleak, ikerlariak... Handik hiru urtera, 1983an, museo-a sortu zuten. Hasiera batean liburutegia besterik ez zegoen baina urteakaz handituz joan da eta gaur egun 1.500 metro koadro dauzka (24 gela eta 6.700 bat tresna).

—Zer aurkituko du bisitariak museoan?

—XX. mendeko tresnak daude gehienbat ikusgai. Europako Société Française D'Histoire de la Médecineko kideak gara, medikuntzari buruzko beste 80 museogaz batera. Bakoitza garai batean da aditua.

—Piezak donazio bidez lortzen dituzue.

—Halaxe da. 7.000 bat pieza edukiko ditugu

eta interesateak denak. Gaien arabera banatuta daude: x izpiak, ginekologia, kirurgia... Guk ez daukagu dirurik ezer erosteko. Halere, oso ondare aberatsa daukagu, diruz pobreak garen arren.

—Zein da arazoa ba?

—Erakundeek eta jendeak orokorrean ez duela uste zientzia, industria eta gaur eguneko tresnak gorde beharreko ondarea direnik. Argi daukate katedral gotiko bat edo erromatarren garaiko

«Gaur egun, 1.500 metro koadro dauzka museoak»

eraikin bat mantendu behar direla, baina ez dute gauza bera pentsatzen XIX. mendeko klinika edota tresna garaikideei buruz. Halere, gaur eguneko ere gorde beharko genuke.

—Oztopoak oztopo 25 urte bete dituzue.

—Museoko fundatzaileen artean Barandiaran eta Julio Caro Baroja egon ziren eta jende pilo-a etortzen zen eskolak ematen: Satrustegi esaterako. Lan historikoa egiten dugu hemen. Azkeneko zortzi urteotan 10 liburu argitaratu ditugu, gai oso ezberdinetakoak. Behin-behineko bost erakusketa antolatu ditugu eta hemendik kanpoko makina bat erakusketatan parte hartu dugu. Katalogoak ere argitaratu ditugu. Gura duenak atek zabalik dauzka 12:00etatik 14:00etara, asteleheneetik barikura. o

Badatoz sanjuanak!

Ekainaren 9tik 24ra arte jaiaz gozatzeko aukera edukiko dugu Leioan



Aurten, lehenbiziko sukalki txapelketa antolatuko dute Leioan

Ekainaren 9an hasi eta 24ra bitartean, leiozartrek sanjuanak ospatuko dituzte eta, bide batez, udaldiari ongietorria eman. Egundienak, baina, asteburuetakoa izango dira, logikoaenez, horietan burutuko dira eta ekintza gehienak.

Horrela, lehenbiziko zapatuan, hilak 16, San Juan Jaietako I. Sukalki Txapelketa egingo dute Ikea Barri plazan. Gauean, berriz, musikaren txanda izango da. Jarabe de Palo eta Sol Lagarto (azken hori Leioako Udalaren VII. Popo-Rock Lehiaketako irabazlea) taldeek emanaldia eskainiko dute Joxe Miguel Barandiaran Bekoa institutuan. Ekainaren 22an, barikua, su artifizialen ikuskizuna egingo da, hala nola, adin eta publiko mota guz-

tientzako musika emanaldiak: Basaki, Golden Apple Quartet, Trio Kima, Triki Take, Diskofesta eta helduentzako playbacka. Hurrengo egunean, berriz, bestelako kontzertuak egongo dira: Sei Urte, Basajaun, Burrunda Festa, etab. Egia esateko, musikak berebiziko garrantzia edukiko du aurten egitarauan eta rock kontzertuez gain, hainbat izango dira entzungai egongo diren estiloak: Leioako Gazte Orkestra, Betagarri, Korrontzi, Batukada (La Txatunga)...

Bestalde, San Juan gauean txokolatadagaz amaituko den ikuskizun berezia egongo da boulevardean eta ohiturari jarraiki sua piztuko dute. Antzerkiak, kirolak, jatekoak eta dantzaz ere gozatzeko du Leioara hurbiltzen denak. o

KURKUDI
HERRIKO TABER-

NA
Jaietan eta larunbatero
bokata goxo-goxoak
eta beroak



Errepresaliatuak etxera

Sabino Arana, 82 behea LEIOA

BERDINEAN
Euskaraz

Elige
en
euskeraz!

UMEZAINZAILA
EUSKALDUNAK
Behar ditugu

Buscamos
CIUDADANAS/ES
EUSKALDUNES
Y NIÑOS/AS

Buscamos
MONITORES/ES
DE DEPORTE
EUSKALDUNES

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

Buscamos
MONITORES/ES
DE TIEMPO LIBRE

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

uRondo
Estankoa

jai zoriontsuak leioztar guztioi!

Sabino Arana 67
T: 94 464 92 33 - LEIOA



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tif: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

[erandio]

Iñigo Aurrekoetxea > txorizo-egile eta abeltzaina

“150 kilo hartu arte itxaroten dut txerria hiltzeko, horrela okela gozoago dago eta”

Izatez Loiukoa da Iñigo Aurrekoetxea eta bertan egiten du bizitza, baserrian. Baina aspaldi Erandiora ezkondu zela eta gauak hemen ematen ditu. Urtean zehar periaz-peria ibiltzen da etxean egindako txorizoak, buzkentzak, txistorrak eta taloak saltzen. Gainera, urtero Erandion egiten den nekazal azokaren antolatzailea ere bada Iñigo. Aurten, ekainaren 3an da hitzordua, Altzagako metro geralekuaren inguruan.



Argazkian, Iñigo Aurrekoetxea

—Zelan hasi zinen txerriekin negozioan?
—Nekazal girokoa naiz betidanik eta etxean beti eduki ditugu abereak. Nire aitak txerriak hazi, loditu eta saltzen zituen, baina ez zuen txorizorik egiten. Guk, ordea, bai egiten ditugu, lantegia daukagu gainera. Gure produktua bertan ekoizten ditugu eta gure osasun-erregistro propioa daukagu.
—Osasun-erregistro propioa?
—Osasun zerbitzuak zer egiten duzun galdetu, esaten duzuna egiteko eskatu eta guztia probatzeko agintzen dizu. Horrela, intoxikazio bat egongo balitz, jatorria zein den berehala jakingo luke. Azken finean gauzak lehen bezala egitea da, baina gaur egungo legedia betez.
—Zenbat txerri daukazazu?

—Momentu honetan 30, baserria konponitzen gabiltzako. Normalean 60 bat edukitzen ditugu.
—Zelan hazten da txerri bat?
—Modu bi daude: mendian aske uztea edo baserrian. Lehenbizikoa ez dakit zelan egiten den. Elorri mota horretan dabilen abeltzain bat dagoela uste dut. Nik kumeak erosi eta baserrian hazten ditut, baina badago emeak eduki eta txerriak erosi behar ez dituenik.

—Txerriak hazi eta gero hil.
—150 kilo hartu arte itxaroten dut. Industrian 80 edo 90 kilogaz hiltzen dituzte, baina gehiago itxarotean okela askoz gozoago dago. Hiltzeko, orain Zorrotzako hiltzera eroan behar dituzu, etxean egitea debekatu dago eta. Halere, azken horretan ez
«Gauzak lehen bezala egiten ditugu, baina gaur egungo legedia betez»

dago kontrol handirik; izan ere, txarriboda batean ateratako guztia prijitu eta egosi egiten da, beraz, ez dago bakteriorik.
—Amaitzeko, berbaiguzu Erandioko nekazal azokaren inguruan.
—Guk antolatzen dugun bosgarren urtea da aurtengoa, baina edizioa hamaisegarrena da. 54 erakustoki egongo dira, betiko guztiak. Animaliak ere ekarriko ditugu, betiko moduan: zortzi idi, lau behi, bi behor euren moxalakaz, hazitarako zaldi bat, astoak, txerriak, ahuntzak, ardiak eta hegazti exotikoen erakusketa. Azken hori ikusgarria da, gauza oso arraroak ekartzen dituzte eta. Horrez gain, baserrian ohikoak diren egin-beharren hainbat erakustaldi egongo da: animalien ferraketa, ardi ule mozketak, Iparraldeko herri kirolak eta lehiaketak (txakolia, euskal pastela eta ortuariak). Era berean, talo txorizoagaz dastatzeko aukera egongo da. ○

Goierri Taldea

Euskadiko Sokatira Txapelketan gailendu da 680 kiloko kategorian



Goierriko tiralariak aspaldiko argazki batean

Erandioko Goierriko sokatira taldeak aurtengoko lur gaineko Euskadiko Sokatira Txapelketa irabazi du 680 kiloko kategorian. Aurreko hiru jardunaldietan ere gailu urten zen Bizkaiko taldea. Zamudion egindako txapelketan inolako arazorik gabe gailendu dira tirada guztietan. Bigarren postua, berriz, Mutrikuko kirolarientzako izan da. Azkenik, Areso eta Gaztedi B taldeek laugarren eta bosgarren lekua eskuratu dute hurrenez hurren.

Auzoko bizilagunek 1977an martxan jarritako taldea da Goierrikoa eta hainbat dira Euskadiko txapelketetan urrea lortu duen aldiak, batez ere 1982 eta 1990 urteren artean. Nazioartean ere lehiatu egin izan da: Suitza, Suedia, Eskozia, Holanda,

Inglaterra, AEBak, Irlanda, Italia, Hegoafrika... Horietan ere lorpen oso garrantzitsuak eduki ditu.

Aurten, gainera, 30 urte betetzen ditu Goierriko Kirol Elkarteak eta ospatzeko, nazioarteko taldeak batuko dituen Outdoor Tug of War International Tournament norgehiagoka antolatuko dute kideek, uztailearen 4an, EHUko kanpusaren ondoan dagoen atletismoko pistan. Orduan hiru kategoriatan jardungo dute mundu osotik etorritako taldeek (tartean Euskal Herriko guztiak): 640, 600 eta 560 kilo. Ondoren, eta taldearen “urtebetzea” ospatzeko, afaria eta jaia egingo dute guztiok alkarregaz. ○

Informazioa: goierri@kzgunea.net

5,7 MILIOI EURO ASTRABUDUKO SAHIESBIDEARENTZAKO

Astrabuduko sahisbidearen bigarren fasea egitea 5,7 milioi euro kostatuko da eta uztailearen hasierarako irekita egotea espero dute aldundiko ordezkariak; izan ere, Eusebio Melero Herri-Lan eta Garraio Saileko ahalduaren esanetan, lanak pentsatu baino arinago doaz. Avanzada ibai ondotik doan errepideagaz lotuko du bide berriak eta auzotik 5.000 ibilgailu kentzea ahalbidetuko du. Gainera, trafikoak eragiten duen zarata askoz txikiagoa izango dela nabarmendu du Melero ahalduak eta horrek Udalak herrian hobekuntzak egitea ekarriko duela uste du. Bestalde, Udondo ibaian 65 metro luzerako zubi bat eraiki gura du Bizkaiko Foru Aldundiak.

ERANDIO GOIKOAN KULTUR ETXEA EGIN GURA DUTE

Goikoa auzoan kultur etxea eraikitzeko izapideak egiten ari da Erandioko Udala. Eraikinak denetarik edukiko du: osasun zentroa, jubilatuen etxea, haurtzaindegia, udal informazio bulegoa, balio anitzeko aretoa, liburutegia, gimnasio eta kultur ekintzak burutzeko aretoa. Andra Mari elizako atzeko aldean egongo da azpiegitura berria eta 1.445.278 euroko aurrekontua edukiko du. Erabileraren araberako ordutegi ezberdinak edukiko dituzte kultur etxeko aretoek.

Zure publikitatea hemen
Zure publikitatea hemen
Zure publikitatea hemen

94 491 13 37

A Arasa
Sukalde eta Komunitarako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa

Sarikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Egunkariak prentsa eta aldizkariak
nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78
T.: 94 491 27 34

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitatarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

SOPELAKO ELIZAREN KONPONKETAK EKAIANEAN AMAITUKO DITUZTE

Sopelako elizaren terraza konpontzeko lanak ekaianean amaituko dituztela iragarri du Udalak. Antza denez, lanen erritmoa oso ona da eta inguru horretan zoladura zein baranda jartzea da falta zaien gauza bakarra. Egindako konpoketen asmoa, berriz, garajeetan kalteak eragin zituen hezetasunagaz amaitzea da. Horretarako, gainazalaren azpian material isolatzaileak ipini behar izan dituzte. Gainera, arrapalak, eserlekuak eta lore-ontziak ipini dituzte. Behin lanak amaituta, Segurdialde kalea eraberritzen hasiko da Udala eta uztailearen erdialdera arte luzatzea aurreikusten dute. Orduetik aurrera, noranzko bakarrekoa izango da Segurdialde.

ESTATUKO BEISBOL TXAPELKETA EGINGO DUTE SOPELAN

Infantilen mailako estatuko beisbol txapelketa Sopelan egingo dute aurten. Jaurtizeko makinagaz, ekainaren 15ean, 16an eta 17an burutuko da Urkoko belar artifizialeko zelaietan. Ander Deuna ikastolako taldeak hiru urte daramatza mota horretako txapelketetan parte hartzen eta 2006an bigarren postua lortu zuen Murtzian, B seriean. Txapelketako jokalaririk onena, berriz, ikastolako ikaslea den Ander Sarasola aukeratu zuten. Parte hartzaileei ikastolan bertan eskainiko zaie ostatua, egonaldia errazteko asmoagaz.

TAITXI MARATOIA EKAINAREN 9AN

Udaberriari begira, datorren ekainaren 9rako taitxi maratokia antolatu dute Sopelan. Hitzordua udaletxe ondoko landan izango da, 9:00etan. Ahalik eta jende gehiena parte hartzea gura dute antolatzaileek.

Zirko Paperak

Karoli Irakasleak zirkoaren unibertsoa ekarriko du Sopelara



Karoli Irakaslea Leioako Umore Azokan egindako agerraldi batean

Ekainaren 1etik 28ra arte, Zirko Paperak izeneko erakusketa ekarriko du Sopelako erakusketa aretora Karoli Irakaslea bezala ezagutzen dugun Ramon Muñoz Farreny antzerkigile eta zirkoagileak. Begiaren gozamenarako ekintza bat izateaz gain, zirkoaren unibertsoan murgildu eta horren historian sakontzeko asmoagaz aurkezten digu Karolik bilduma. Horretarako, zirkoagaz zerikusirik daukan edozer gauza erabiliko du artistak: liburuak, margoak, kromoak, zigiluak, postalak, jostailuak, etab.

Horrez gain, Karoli irakasleak saio bi eskainiko ditu Udaletxeko enparantzan,

ekainaren 2an eta 27an.

Antolatzaileen esanetan, erakusketa ilusioz betetako bizitza askoren ondarea da, beraien zirkoarekiko irrika, greziar eta erromatar garaietatik hasi eta gaur eguneko zirko edo Nouveau Cirque arte.

Karoli Irakaslea gauza asko da aldi berean: malabarista, komikoa eta zirkoagaz zerikusirik daukan edozer gauzaren bildumazale porrokatua. Bere garaian, Boni i Caroli bikotearen fundatzailea izan zen eta 18 urtez munduan barrena ibili zen talde horregaz emanaldiak eskaintzen. Gaur egun, berriz, bakarrik eskaintzen ditu emanaldiak. ○

Eneko Calle > Nuyum elkarteko idazkaria

“Begirale ikastaroa antolatuko dugu Saharako akanpalekuetan”



Sopelako sei familiak hartuko dituzte Saharako umeak uda honetan

Eskualdean nahiko ezaguna da daborduko Sopelan dagoen Sahararen aldeko Nuyum elkarte. Zeresan handia eman du Ander Deuna ikastolako ikasleek 2005ean basamortura egindako bidaiaz geroztik; horiek izan ziren-eta elkartearen hastapenak. Hasiera batean, gazteek zeukaten egitasmoa aurrera ateratzeko ardura, baina bestelako proiektuetan sartutakoan, hainbat izan dira Nuyumegaz bat egindako herritarrek. Gaur egun, beraz, makina bat ekintza (Oporrak Bakean programa, aste kulturala Saharan...) antolatzen ditu, Eneko Calle eta bere sendiaren (ama diruzaina eta aita presidentea da) gidaritzapean.

Momentu honetan, esaterako, aurtengo Oporrak Bakean programa prestatzen dabilta Nuyumen. “Aurten sei familiak parte hartuko dute, iaz baino gehiago”, esan du pozik Enekok. Horrez gain, Ocialdi izeneko proiektua martxan jarri gura dute Sopelakoek. “Joan den hilean bost eguneko begirale ikastaroa egin nuen eta hori Saharako akan-

palekuetan egitea bururatu zitzaidan. Bertan, skaut antzeko batzuk antolatzen dituzte umeentzako ekintzak. Bertako gazteek horiek antolatzeak aukera izatea gura dugu guk”.

Bestalde, Santutxuko institutuagaz ere bidaia prestatzen ari dira. “Ez dakit horrelako bidaiak erabat ados gauden. Gipuzkoatik 100 bat joan dira orain dela gutxi eta horretarako dirua eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Hori aurpegia! Kontua da bertara proiektu batez joatea, baina ope-

«Akanpalekuetako egoera latza dela nabarmendu du Nuyumeko Enekok»

retan... Dirua eskatu bai, baina akanpalekuetan zerbait muntatzeko, ez zure bidai ordaintzeko. Guk konpromisoa eskatuko diegu Santutxuko ikasleei, Saharako ez da eta broma”, azpimarratu du Nuyumeko idazkariak eta basamortuko akanpalekuetako biztanleen egoera nahiko latza dela nabarmendu. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 BIDE STEGI pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEUNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK Taberna

San Pedro zoriontsuak!

Bentatxu, 2
48600 Sopela

EKITALDIZ BETETA DATOR ERDI AROKO AZOKA

Berangoko Erdi Aroko Azokaren III. edizioa burutuko dute ekainaren 9 eta 10ean Moreaga parkean. Goizeko 11etan hasita eta gaueko 10:30ak arte, ekitaldi ugari izango dira zapatuan. Goizean, pregoiaren irakurketarekin eta kalejirarekin hasiko dira. Horren ostean, malabaristen eta ipuin kontalarien txanda izango da. Arratsalde partean, juglareak izango dira 18:30etik aurrera. Egunari amaiera emateko La Celestina kale antzerkia ikusteko aukera egongo da. Domekan, akrobata eta txerpolariekin hasiko da eguna. *El romance de pura apariencia* magia eta zirku ikuskizunarekin gozatu ahal izango da 12:30etik aurrera. Horrez gain, umeentzako antzerkia eta mozorro erakusketa egongo dira.

DEABRU BELTZAK EKAINAREN 8AN

Bande Déplacée obrarekin hiriko dantzan, suan eta erritmoan oinarritutako lan berria aurkeztuko du Deabru Beltzak taldeak ekainaren 8an. Ikuspuntu berri batetik ikertu nahi dute hiriko espazioa eta, horretarako, erritual garaikideak eta samurai antza duten pertsonaiak ekarriko dituzte. 1996an sortu zen Deabru Beltzak taldea, hainbat antzerki taldetako aktoreekin. Ordutik, arrakasta handia izan duten zortzi antzezlan aurkeztu dituzte, horiekin 900 ekitaldi eginez. Lekeitioko Nazioarteko Kale Antzerki Jaialdian eta Leioako Umore Azokan izan dira, beste leku askoren artean.



ELKARTEEN LANA IKUSGAI

Berangoko hainbat elkarte urtean zehar egindako lana ikusteko aukera egongo da hil honetan. Ekainaren 14an, bideo-balet emanaldia egongo da Berangoetako kultur etxean, arratsaldeko 6etan. Horrekin Adagio dantza elkarteko lagunek urtean zehar egindako lana ikusteko aukera eman nahi dute. Bestalde, ekainaren 16an, antologia poetikoa izango da A.C.A.D.A.E elkartearen eskutik. Azken hori ere Berangoetan izango da, arratsaldeko 7:30ean.

Berangoko txakolingileak >

“Herriko txakolinaren kalitatea hobetzea da gure helburua”



Berangoko txakolingileak

Orain dela zazpi urte hainbat berangoztarrak herriko txakolina zabaltzea eta hobetzea bilatzen duen elkarte sortu zuen. Gaur egun 41 kide dira: *“Laguntzaileak 20 gara eta txakolingileak 21”*, azaldu digu Iñaki Arestik. Txakolinaren kalitateaz eztabaidan zeudela erabaki zuten elkarte sortzea: *“Beti kontu bera, zurea nirea baino hobea dela...baina nork esaten du hori?”*. Berangoko txakolina-

«Ekainaren 17an Txakolin Eguna ospatuko dute»

ren maila hobetzea lortu gura dute eta ahal izanez gero, baten batek Jatorrizko Izendapena lortzea gustatuko litzaieke: *“Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen Bialtza erakundearen esku dago hori; haiek kontrolatzen dute gure txakolinaren kalitatea”*.

Udalarekin koordinazioan lan egiten dute eta, Aste Kulturalaren barruan, Txakolin Eguna antolatzen dute urtero. Aurten, ekai-

naren 17an izango da, frontoiaren parean. 670 ardo botila, 54 kilo txixiburduntzi eta 50 kilo lukainka banatuko dituzte, dena musu-truk. Ordaindu beharko den bakarra, egun horretarako propio egin dituzten mila edalontziak izango dira. Euskal Herriko opila erosteko aukera ere egongo da. Egur-diko 12etan hasita eta bazkalordura arte BBK-k jarritako etxoletan egongo dira txakolin laguntzaileak.

Janaria eta edaria banatzeaz gain, txistulariak eta trikitilariak giroa berotzen saiatuko dira. Gainera, Erandioko abesbatzako lagunak hurbilduko dira emanaldi berezia eskaintzeko. Oraindino zehaztuta ez daukaten arren, urtero bezala, pertsonaia ezagunen bat etorriko da sariak banatzera. Horrekin guztiarekin, giro polita sortzea espero dute elkarteko kideek. Lanaldia bukatutakoan, bazkaria antolatu dute elkarteko lagunentzat, urtean zehar egindako lana jaki eta ardo gozoa dastatzu ospatzeko. ○

Mikel Vega > karretero

“Albaitariak jokoan sartzea ez da ona, probakaz amaituko dute”



Animaliaz inguratuta ibiltzen da egunero Mikel (eskuinean)

20 urteko gaztea da Andrakako Mikel, baina gure inguruan ibiltzen diren gazte gehienei ez bezala, eguna baserri giroan ematea gustatzen zaio. Kortan aurkitu dugu, zaldiez, ardiez, ahuntzez, katuez, txakurrez eta idiez inguratuta. Hain zuzen ere, azken horiek dira bere pasioa eta herriz herri ibiltzen da probetan karretero. *“Egunero etortzen naiz idiei jatekoa ematen eta egun batean bai beste batean ez entrenatzen ditut. Pista bi dauzkagu, kanpoko eta negurako estalita dagoena”*, azaldu du Mikelek. Proba ofizialetan ere ibiltzen da abeltzain gaztea. *“Aurten ordeaz ez dugu denboraldi oso ona egin, klasifikazioan nahiko atzean geratu gara”*.

Idi probena kirol polemikoa dela badaki Mikelek, baina hain gogorra ez dela uste du. *“Ez da akuilua debekatzeko bezain gogorra. Ordu erdi besterik ez dute ibili behar eta tarte horretan idiak apur bat estutu behar dituzu. Kanpotik ezberdin*

ikusten dela uste dut, ezjakintasun handia dago. Sufritu, sufritu egiten dute, baina guk ere egunero jatekoa ematen etorri behar dugunean”. Proben etorkizuna bermatuta ez dagoela uste du gainera. *“Albaitariak jokoan sartzea ez da ona, probakaz amaituko dute eta gaur egun idiak bakarrik erabiltzen dira horretarako, izan ere, ortuan traktoreak dira nagusi”*.

«Idi probak ez dira akuilua debekatzeko bezain gogorrak»

Aitaren jatetxerako arkumeak eta antxumeak ere Mikelek hiltzen ditu eta ohituta dagoela nabarmendu du, txiki-txikitatik ikusi du eta. *“Jendeak okela erosten du ezta? Greenpece asko, baina ziur nago okela platerean eduki gura dutela horiek guztiek. Nondik urten behar du? Zer uste dute, guztia negutegietan bazten dela patatzen eta tomateen antzera?”* ○



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



Ajuria taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



UDALEKUETAN IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Uribe Kostako Mankomunitateak umeentzako udalekuak antolatatu ditu uda honetarako. Horiek, euskararen erabilera bultzatu, talde dinamika sortu eta elkarbizitza jokabideak garatu nahi dituzte, beste gauza askoren artean. Txanda bi egongo dira, parte-hartzaileen adinaren arabera. Alde batetik, 3-5 urte bitarteko Lemoiz, Urduliz eta Gorlizko neska-mutilentzat, uztailearen 2tik 27ra bitartean burutuko dena. Bestetik, 6-12 urte bitartekoentzat, Plentziako institutuan uztailearen 2tik 20ra egingo dena. Azken horretan, Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizen eroldatutako gazteek har dezakete parte. Izena eman nahi dutenek Mankomunitateko bulegoetara (Gatzarriñe 2, Sopela) hurbildu beharko dute ekainaren 8a baino lehen. Plazak esleitzeko, behar izanez gero, zozketa egingo da izena ematen duten guztien artean. Bestalde, Mankomunitateko euskara zerbitzuak antolatuta, *Euskeraz Olgetan* programako jarduerak izango dira ekaineko eguazten guztietan Urdulizko frontoi berrian, astelehen guztietan Lemoizko eskolan, ostegunetan Plentziako Astillero plazan, zapatuetan Sopelako Urgitxieta plaza eta domeketan Iberrebarri plazan.

OSASUN-ZENTRO BERRIA

Larrialdiak, arreta bereziko kontsultak eta kirurgia saila bilduko dituen ospitalea eraikiko dute Urdulizen, Uribe Kostan osasun zerbitzuetan dagoen gabeziari aurre egiteko helburuarekin. Eusko Jaurlaritzak 45 milioi euro emango ditu zentroa eta beste zerbitzu osagarri batzuk abian jartzeko.

GORLIZ

Kosta Trail lasterketa solidarioa ekainaren 10ean



1.400 korrikolari espero dituzte antolatzaileek

Eugenia Epalza esklerosi anizkoitzaren aldeko elkartearentzat dirua biltzeko helburuarekin, lasterketa solidarioa antolatuta dute ekainaren 10erako. Ekimenaren bultzatzaileek, 1.400 lagun batu nahi dituzte Kosta Trailaren II. edizio honetan. Euskal Herrian 2.000 lagun baino gehiagok sufritzen dituzte gaixotasun horren ondorioak eta euren-tzat joango da izen-emateekin lortzen den diru guztia.

Hiru lasterketa ezberdinetan parte hartzeko aukera egongo da. Lehenengoa, Por-

tugaleten hasi eta Gorlizen amaituko den maila handiko mendi lasterketa (30 kilometro); bigarrena, maila ertainekoa (20 kilometro); eta azkenik, etxeko txiki-ci zuzendutako martxa neurtua (10 kilometro). Azken biak Sopelako Udaletxe Plazan hasi eta Gorlizko hondartzan amaituko dira.

Izena emateko aukera ekainaren 9a arte egongo da, lau euroren truke, Artea merkatalguneko Forum Sport dendan eta www.forumsport.com webgunean. ○

Eka. 4-19

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► Arte aplikatuak.

Algortako eta Erromoko kultur etxea. Ekainaren 4tik 8ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

► Txontxongilo Eguna.

Erromoko erakustaretoa. Ekainaren 11tik 17ra arte. 11:00-13:00 eta 18:00-21:00.

► Ehoziri lanak.

Algortako erakustaretoa. Ekainaren 11tik 16ra arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

► Antzezaleak.

Algortako erakustaretoa. Ekainaren 18tik 30era arte. 10:00-13:00 eta 18:00-21:30.

LEIOA

► Deialdi kolektiboa 07.

Kultur Leioa. Ekainaren 7tik uztailearen 1era arte. 10:00-14:00 eta 17:00-20:00.

PLENTZIA

► Araldi tailerra.

Gofi Portal. Ekainaren 15era arte.

SOPELA

► Zirko paperak.

Kultur Etxea. Ekainaren 28ra arte.

URDULIZ

► Umeen lanak.

Kultur Etxea. Ekainaren 1etik 10era arte.

► Jaietako kartelak.

Kultur Etxea. Ekainaren 13tik 29ra arte.

MUSIKA

GETXO

► ► **HASH, Sherman Robertson and Blues Move.** Erromoko Santa Eugenia plaza. Ekainak 8, barikua. 21:30. Sarrera dohainik.
► **Buddy Guy.**

► **Algorta**

Argentina eta Euskal Herria bertso kantari

Payadoreak Argentina eta Uruguai aldean, hemengo bertsolariaren moduan, bapateotasuna jorrazten duten sortzaileak dira. Payatarrek berriz, gure eskualdeak eman dituen bertsolariak onenak dira. Beraz, garbi zegoen; payadoreak eta payatarrek elkarrekin aritu behar ziren halaberharrez. *PAYAdoreak*, izen hori ipini diote antolatzaileek (Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzua eta Algortako Bertsolari Eskola) Algortako The Piper's Irish Puben egingo den bertsoaio berezi honi. Xabierrek eta Fredik eta Argentinatik etorritako Wilson Saliwoncyk eskaini behar duten saioa doan izango da. Oso itxura ona dauka.

• **Non:** The Piper's Irish Pub • **Noiz:** ekainak 7, eguena • **Ordua:** 20:00

Erromoko Santa Eugenia plaza. Ekainak 9, zapatua. 21:30. Sarrera dohainik.
► **Zora Young.** Erromoko Santa Eugenia plaza. Ekainak 10, domeka. 21:30. Sarrera dohainik.

LEIOA

► **San Joaneko kontzertu zikloa.** Auditorium. Ekainaren 13tik 16ra arte. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► **Betagarri, Falso Dogma.** Joxe Miguel Barandiaran Bekoa ikastetxea. Ekainak 15, barikua. 22:00.

Sarrera dohainik.

► **Jarabe de Palo, Sol Lagarto.** Joxe Miguel Barandiaran Bekoa ikastetxea. Ekainak 16, zapatua. 22:00. Sarrera dohainik.

ANTZERKIA

GETXO

► **Txontxongilo Eguna.** Erromoko Santa Eugenia plaza. Ekainaren 15etik 17ra arte.

Sarrera dohainik.

ZINEA

PLENTZIA

► **Live Acuatc.** Gazteentzako zinea. Ekainak 9, zapatua. 17:00.
► **Lilo & Stitch.** Urmeentzako zinea. Ekainak 16, zapatua. 17:00.

BESTEAK

GETXO

► **Gorputzi Eguneko jai.** Algortako Etxetxu plaza. Ekainak 10, domeka. 12:00.
► **XIV. Getxotar Dantza Eguna.** Getxo Antzokia. Ekainaren 15etik 17ra arte.

BERANGO

► **Erdi Aroko Azoka.** Ekainak 9 eta 10. 11:00-14:30 eta 17:00-21:00.

LEIOA

► **Txorierriko jaiak.** Ekainaren 8tik 10era arte.
► **Sanjuanetako jaiak.** Ekainaren 9tik 23ra arte.
► **Jota txapelketa.** Errekalde plaza. Ekainak 10, domeka. 12:30.
► **Sukalki txapelketa.** Ikea Berri plaza. Ekainak 16, zapatua. 9:00.
► **Karting lasterketa.** Mendibile. Ekainak 16, zapatua. 15:00.
► **Txirrindularitza: Euskadiko txapelketa.** Boulevard. Ekainak 17, domeka. 16:00.

GORLIZ

► **02 Forum Sport Kosta Trail.** Ekainak 10, domeka. 10:30.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Maskarada Lamiakon

Bere semea ez zela konturatzean gogor oihukatu zuen Prudentziak eta lamien kantua entzun zen urrunean. Hartatik, Lamiako Hondartza izenarekin ezagutzen dira Ondizko ihitzak. Gertaera hori gogora ekartzeko eta herriko ohiturak bizirik mantentzeko helburuagaz, Maskarada antolatzen dute urtero Gaztelubide baserritik hasita, maiatzeko azken barikuan. Aurten ere, bertan egon ziren Mari, Sugaar eta gainontzekoak, kantuka eta saltoka suaren inguruan. Orrialdeotan egun magiko horretan hartutako zenbait irudi daukazue.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



Ardaoa barra-barra

Fede Merino

Gaur egun Algortako batzokia denaren alboan zegoen "Vinos Hormaza". Gerra ostean, 40ko hamarkadan, zabaldu zuen negozioa Jesus Hormazak.

Garai latz eta ilun haietan ontziratu gabeko ardao saltzen hasi ziren eta horretan segitu zuten 80ko hamarkadaren bukaeran ateak itxi zituzten arte. Ardao bertan saldu ez eze etxeetara ere banatzen zuten. "Vinos Hormaza" txikiteroen gotorlekua izan da ia mende erdiz.



ALGORTA, 1986.
Argazkian azaltzen direnak "Tolefe" eta Juan Aburra bistularia direla jakin ahal izan dugu.

[berbetan]

Erandioztarra, Larrabetzun bizi da gaur gaur egun. Iñaki Barcena, EHuko irakaslea lanbidez (Zientzia Politikoetan, zehaztasunaren maitaleentzat), gazterik hasi zen antimilitarismoan, eta luze gabe igo zen ekologismoaren ontzira, Eguzki jaiotzeaz batera. Euri azido asko bota du euskal ekologismoaren egunsenti hartatik, eta mugimenduarentzat garai ilunagoak ditugu gaurko hauek, Barcenak elkarrizketa amaieran aitortu duenez. Beste pasarte batean, hala ere, Euskal Herrian hamaika borroka ekologista dagoela gogorazi digu, beste horrenbeste azpiegitura proiekturi oldartzeko sortuak. Berak, Ekologistak Martxaneko kide izanik, guztiez daki zerbait, eta horregatik beharbada egoeraren irudi orokorra eskaini ahal izan digu. Honela labur dezakegu: mendebaldar bizimoduak bidegabekeria eta hondamendia dakartza mundu latz honetara, eta hori iraultzea da ekologista baten zeregina.

Iñaki Barcena

Mundua ez da biribila

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Zertan da gaur egun ekologismoa? Kanpotik begira behintzat, mugimendu ekologista oso zatikatuta ikusten da. Ez diot aurkako jarrerak dagozenik, baina bai zati asko. Sigla asko, alegia.

—Hemen denak gara ekologistak. Siglak egon badaude; gaur egun nazioarteko erakundeak daude —Greenpeace, WWF...—, badaude estatu mailan dabiltzanak... Guk, Ekologistak Martxan, Euskal Herrian kokatzen dugu geure egitasmoa, baina konfederazio batean gaude Ecologistas en Acción-ekoekin. Eta gero, badago mila talde txiki eta tokian tokiko mila ekimen, Euskal Herriko bailara bakoitzean. Hori ondo dago, baina tokian tokiko markoetatik gora joatean indarra galtzen da. Ekologistok asmatu genuen esaldi hau: pentsatu globalki eta ekin tokian tokiko errealitatean. Gaur egun, zoritxarrez, pentsatu eta ekin, biak egin behar ditugu maila bietan. Eta hori zaila da.

—Edozelan, ematen du badagoela talde ekologista guztiak lotzen dituen hari bat: gaur egungo eredu ekonomiko neoliberalak eragiten dituen kalteei aurre egitea...

—Bai, baina badago ekologista liberalik ere, edo nolabait, merkatuaren dinamika ezbaian jartzen ez dutenak. Ekokapitalistak, esan genezake; hor dugu Al Gore, estarako, alda-

keta klimatikoaren kontrako diskurtsoan nabarmetzen. Ahots horiek, pertsonaia horiek, existitu egiten dira. Sintomei dagokien ados gaude eurekin, baina zergatien dagokienez, inolaz ere ez. Euskal Herrian eta Europan ekologismoa ekosozialista da gehienbat, edo ekologismo soziopolitiko. Hirugarren munduan ere bai, eta gurea baino are sozialistagoa batzuetan. Baina hori ez da leku guztietan gertatzen, badira ere kapitalismoari kolore apur bat, erreforma ekologiko bat, ipini nahi diotenak, baina kapitalismoaren funtsa aldatu barik.

“Gizartearen eta naturaren arteko lotura orekatua gura dugu”

—Ekosozialismoa, izenak halan ematen du aditzera behintzat, ez da zuhaitzez, mendiez eta animaliez arduratuko bakarrik...

—Ez. Tira, gure artean badira kontserbazionistak ere bai, uste dut gutxiengoa direla, baina horiez aparte, eta ekologista mistiko eta erlijiosoz aparte, guk gura duguna natura eta gizartearen arteko lotura orekatua da, ez ditugu, kontserbazionistek bezala, natura eta gizartea bereizten. Gure ekologisma nahiko hirikoa da, gure gizartean sortutako eredu hori, garapenkeria hori, hazkunde ekonomi-

koaren bila aritze hori da eztabaidan jartzen duguna, pentsatzen dugulako hori konpon-tzen bada, gaixotasun horiek sendatzen baditugu, naturarekiko harremanak guztiz desberdinak izango direla.

—Azken boladako borroka ekologistarik nabarmenena, Euskal Herrian, Abiadura Handiko Trenaren (AHT) aurkakoa da...

—Zalantzarik gabe hori mamu nagusietakoa da. Azpiegitura hori egiteak edo ez egiteak definituko du biharko Euskal Herria nolakoa izango den. Bai energia alorrean, bai lurralde antolamenduan, bai garraio politikan... gau-

zak oso desberdinak izango dira, hori egin ala ez egin. Borroka handia da eta uste dut ekologismoa ondo ari dela, bere indar gehienak horretan jarriz asmatu egin duela. Oso dema handia da, baina funtsezkoa da proiektu hori kolokan ipintzea, Euskal Y hori garapenkeriaren alde txar guztien adierazpidea delako, bai garraio aldetik, bai energia aldetik, bai inguru naturalak zeharkatuz...

—Mugikortasun kontzeptua dago eztabaidaren ariman.

—Bai. Politikariek esaten dute mugikortasu-



na eskubidea dela. Noren eskubidea? Era-kunde publikoek eskubidea dela esaten dute, baina beste alde batetik ekimen ekonomikoa ere badela: elite batzuek negozioa egiten dute mugikortasunari esker. Gure iritziz, mugikortasuna, gaur egun, arriskua da batez ere. He-gaztiak bezala urtean 20.000 edo 30.000 kilo-metro egin ditzakegula uste dugu, eta hori ez da naturala. Horrek bere mugak ditu, eta mugak ez dira bakarrik energia-baliabideak agortu egingo direla martxa honetan segituz gero, baizik eta planetako ekosistemek onartu ezin ditzaketen hondakinak sortu ditugula. Klima aldaketa izan daiteke arazo bat, edo gaur egun ditugun eurite azidoak, edo Prestigeren hondamendia... Berrito pentsatu behar dugu mugikortasuna ea eskubide unibertsal eta sakratua den, edo gutxi batzuentako nego-zioa. Erakusten badigute autoa dela gure askatasuna, eta sexu-plazera, eta dena pakete bere-an badao... Hori da, beharbada, hankaz gora ipini behar duguna.

—**Ez da erraza.**
—Ez, baina asmatu beharko dugu, garraioak eta mugikortasuna zelan erabili. Jakin beharko dugu gauzak beste modu batean egiten, eta beharbada gero eta urrunago lan egin beharrean gero eta hurbilago egin beharko dugu, hau da, gure umeak, autoz edo autobusez eskolara joan beharrean, oinez eraman behar ditugu, beharbada eskolak hurbilago egin behar ditugu... Beste eredu bat sortu, azken batean. Garraioa zehar-lerro bat da, eta gure bizimoduarekin lotuta dago, gure antolamendu ekonomikoarekin, gure lan antolamenduari, erostekak egiteko moduari... Nor joango da oinez saltoki handi batera? Garraioa garapeneriaren bizimodu zoro horrekin lotuta dago, eta hori da aldatu behar dena.
—**Ekologistok pentsatzen duzue horretaz. Kaleko jende arruntak ez, esango nuke. Eta politikariak?**
—Jende arruntak ere pentsatzen du batzuetan. Kontua da jende arruntak zera esaten duela: aurrean dagoenak alda dezala, egoera. Autoan doazela zazpi kilometroko ilada topatzen dutenean, pentsatzen dute: zer demontre egiten dute nire aurrean dauden hauek guz-tiek? Politikariak ere, horrelako egunetan, horrelako iskanbilak daudenean, biharamune-

an komunikabideetan agertzen dira barkame-na eskatzen. Baina esango nuke politikariak, boto-emaileengan baino, autoen mugikortasunean pentsatzen dutela. Autoak hirira etortzea arazoa da, baina ez etortzea arazo handiagoa da. Garraioa, jendea mugitzea, negozioa da eurentzat. Kontua da politikariak arazoak dauzkatela. Azpiegiturak egin behar dituzte, horrek konponbiderik ez dakarrela jakin arren. Baina presioak daude. Eurek badakite azpiegitura berriak egiteko sekulako dirutza erabiliko

“AHT edo Euskal Y garapeneriaren alde txar guztien adierazpidea da”

dutela, baina horrek konponbiderik ez duela. Gaur egun zenbakiak agintzen dute: gero eta auto gehiago, gero eta merkantzia gehiago, gero eta auto-ilada gehiago. Batzuetan pentsatzen dut gure politikariak yonkiak direla. Esaten dute: azkeneko dosia, azkeneko erre-pide, azkeneko azpiegitura... Baina hurrengo egunean beste txute bat behar dute.
—**Eta zelan aldatu jendearen pentsamoldea? Nik esango nuke jendeak ez dituela autorako alternatibak gura, erre-pideak norberarentzat hutsik egotea baino...**
—Jakina, bost milioi pezetako autoa erosi eta gero ezin duzu etxean gordeta eduki. Zure estatus sozialaren erakusleho garrantzitsua da, eta Bilbora bazoaz afaltzera, eraman egin behar

“Behar ditugun baliabideak hirugarren mundutik prezio injustuan datoz”

duzu, eta edonon utzi, eta lanera berdin. Oso jende gutxi pentsatzen du erosoago joaten dela autobusez ordu erdi batean autoan hoge-i minutuan baino. Oraindik ere, egia esan, ez dago auto-pilaketa arazo handi-handia gurean, baina zelan aldatu jendearen burua? Arazoa bere gordinen ikusten dutenean.
—**Klima aldaketari aurre egitea da oraintxe ekologisten erronka nagusia?**
—Esango nuke hori sintoma bat dela. Nire ustez, gaurko arazo ekologiko nagusia da munduaren %20ak baino gutxiagok zelako lapurketak eta triskantzak egiten ditugun, eta

populazioaren beste %80ak zelan jasaten duen gure bizitza eredu. Gure egunerokotasunean behar ditugun baliabide horiek (petrolio, gasa, lehengaiak, elikagaiak, jantziak, ordena-gailuak...) Hirugarren Mundutik datoz, eta prezio injustuan.
—**Klima aldaketaren inguruan, zelangura ere, katastrofismo itzela dabil zabaltzen...**
—Batzuetan bai eta beste batzuetan ez. Orain, zientzialari batzuek alarma piztu dute. Egia da Artikoa eta Antartikoa urtzen badira arazoak

oso handiak izan daitezkeela. Baina ni ez naiz katastrofismoaren aldekoa. Uste dut hobe dela gauzak modu arrazionalen azterzea, eta ardu-raz jokatzeko. Zoritxarrez, gure elite politiko eta ekonomikoak oso zinikoak dira. Azken batean, pentsatzen dute gutako bakoitza planeta honetan beste hoge-i edo berroge-i urte egongo dela, eta ehun urte barru zer gertatuko den bost axola; ez dute aitortzen, baina horrela jokatzeko dute. Alarmismoari ez deritzot ondo, baina bai arazoak demokratikoki kontrajartze-ari. Eta askotan ezin ditugu arazo ekologikoak mahai gainean ipini ere.
—**Jauriaritza hori leporatzen diozue hain zuzen, AHTaren auzian: aurkako ahotsak entzun ere ez dituztela gura...**

—Noski. Gu ez gara enpresa, ez dugu etekin pertsonalik bilatzen, eta alde horretatik jende-ak konfiantza handia du gudan, baina ezin ditugu agenda politikoetan nahi ditugun gaiak ipini; komunikabideek, enpresariak eta politi-kariak ipintzen dituzte. Supersur, edo AHT, edo Pasaiaiko portua, edo garapeneriaren beste proiektu horiek eztabaidatu nahi ditugu, maila guztietan, eta ez dago modurik. Pentsatzen dugu erabakiok erakunde politikoek hartu behar dituztela, baina Euskal Herrian kokoteraino gaude, beti protesta eta protesta. Eta ez da inongo jaramonik egiten. Orain

demokrazia partehartzailearekin betetzen dute ahoa, lehen garapen jasagarriarekin bete-zuten bezala, baina errealitateak erakusten du ez dagoela inongo elkarrizketarik.
—**Demokrazia partehartzaileaz hainbat az-terketa egindakoa zara zu gainera, ezta?**
—Bai, hala da. Euskal Herrian txapeldunak gara horretan, antza. Adibidez, tokiko Agenda 21. 200 baino gehiago daude mar-txan, eta oso ondo dago, baina gero ikusten duzu txapeldunagoak gure arazo ekologiko-etan. Leku guztietan dago proiektu baten aurkako kanpaina bat, plataforma bat... errauskailuak, kirol portuak, zentral termiko-ak... Politikariak erabili egiten dute demo-krazia partehartzailearen lelo hori, baina gero, errealitateak erakusten du ez dagoela inongo haremanik.
—**Ekologismo berba ez bada, “orlegi” berba modan dago behintzat. Erakundeetatik eta ekologistok hainbestetan salatzen dituzuen enpresetatik sarritan datozkigu “orlegitasun”**

mezuak...
—Hori itxurakeria da, aspaldiko partez inge-lese *green wash* (garbiketa berdea) esaten zaiona. Eliteek edo agintariak bakarrik ez, jende guztiak ekologizatzen jotzen du bere burua. Denek nahi dute demokrata izan, askatasunaren alde egon... oso jende gutxi esaten du arrazista dela. Eta inork ez dio eko-logismoaren aurkakoa denik, denok gara eko-logistak. Kontua da ekologismoa gauza bat dela eta ekologia beste bat. Guk esaten dugu gauza bat dela soziologia eta beste bat sozialis-moa. Eta jendeak oso argi ulertzen du zer den gauza bat eta zer bestea. Ekologismoa gizarte mugimendu bat da, mundu honetako eko-sistemetan egiten ditugun triskantzak kon-pontzeko, eta horren aurrean batzuek beste lehentasun batzuk ipintzen dituzte, negoziak edo dena delakoa. Lehentasun ekonomiko-ak beti. Zoritxarrez, horiek nagusitu dira mundu honetan, baina ni baikorra naiz. Gero eta arreta handiagoa eskaintzen zaie

gai hauei. Eta mugimendu ekologista ez dago bere momenturik onenean, baina etorriko dira garai hobeak.
—**Satanizatuta sentitzen zarete?**
—Bai, batzuetan. Unibertsitatean, esaterako, zientziaren aurkakotzat gauzkate, baina zien-tzialariak, gero eta gehiago, arazoia ematen diete gure tesiei.
—**Ez denek...**
—Ez, baina... Beste alde batetik, ikusen dugu politikariak ez dutela gogoko guk mahaigai-neratzen ditugun gaiak ikutzea. Baina gero, deitu egiten digute pil-pilean dauden arazoak konpontzeko, Prestigeren hondamendia adi-bidez. Eta enpresariak antzera: askotan satani-zatzen gaituzte, eskatu egiten dituzte guretza-ko zigorrak, isunak... euren jarduna oztopa-tzen dugulako, lanak geldiarazten ditugunean eta abar, baina gero dirua eskaintzen digute eurekin bat egin dezagun, lankidetzan ari gai-tezen. Nahiago dugu independentzia ekono-mikoa, noski. ○

aldizkaria **etxean** jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....


Urtero 20 euro 30 euro 50 euro beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria
171 posta kutxa / 48991 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37




"TANGA POR LA PATRIA", GETXO 2006. OSKAR MARTINEZ



"GAUZAK EZ DIRA EMATEN DUTENA", GETXO 2002. TXETXU BERRUEZO

Talde erakusketa

Ez da talde erakusketa bat egiteko elkartzen diren lehenengo aldia. Guztiak dira argazkilariak, guztiak dira eskualdekoak; horixe baino ez dute komunean. Orain arte Algortako Satistegi kafean ikusi ahal izan den erakusketako gaia librea zen, argazkilari bakoitzak berak aukeratutako irudi bi aurkeztu behar zituen eta lan horiekin osatu da erakusketa. Orrialdeotan daukazue lan horren emaitza.



"BARRASKILOAREN BIHURGUNEAK", GETXO 2002. TXETXU BERRUEZO



"FATIMA, B ALDEA", PORTUGAL 1996. ASIER MENTXAKA



"GRAZIAZKO TIROA", CACERES 2001. JAVI MARTINEZ




"LAUKOTEA", BUTROE 2006. AITOR GALBARRIARTU



"SUZKO ZEENA", GETXO 2006. MIKL MARTINEZ DE TRESPUENTES



"TOTEM POLE 2", TASMANIA. JABI BARAZAZARRA



"FUNANBULSTA", GETXO 1989. JUAN LUIS MARKAIDA



"ANIELARRA" BELAGUA 2002. JUAN LUIS MARKAIDA



"ILBETEA ETA HEGAZKINA", GETXO 2006. ALFREDO ALDAI



"DUNA", MAROKKO 2005. AITOR GALBARRIARTU



"EGUZKI INDUSTRIALA", ERANDIO 2004. ALFREDO ALDAI

zineeskola

Oskar Fernandez

Identifikazio
zinematografikoa (II)

Aurreko zenbakian ikusi genuenez identifikazio zinematografikoa hiru mota desberdinez osaturik dago. Primarioa aurrekoan agertu zen. Beraz ikus ditzagun beste biak: sekundarioa eta kontakizunarekiko identifikazioa. Sekundarioa: ikuslea kontakizunaren pertsonaia batekin identifikatzen denean gauzatzen da. Identifikazio mota hori pertsonaiek dituzten ezaugarrien erabileran datza. Pertsonaiek egiten dituzten ekintzak, dauzkaten portaerak, pentsaera eta abar gure gustukoak baldin badira, haiekiko lotura psikologikoa sortaraziko zaigu. Betidanik, zinemaren hastapenetatik, identifikazio hori ahalik eta errazen egin ahal izateko, zuzendariek, eta batez ere ekoizleek, eredu oso simple eta azalekoak, baina oso efektiboak, erabili izan dituzte; gaur egun irizpide edo eredu horiek irauten dute: istorioaren protagonistek eduki behar dituzten ezaugarri fisikoak oso atseginak eta ederrak izango dira; antagonistek erakusten duten itxura, berriz, ez da estetikaren aldetik batere atsegina izango. Estrategia horren bidez lehenengo momentutik ikusleek pertsonaia batzuk maitatuko dituzte eta beste batzuk gorrotatuko edo arbuiatuko dituzte. Hirugarren identifikazioa kontakizunarekiko identifikazioa da. Hori ulertzea aurrekoa bezain erraza da. Pantailatik pasatzen den istorioa guri atsegina egiten baldin bazaigu, berehala murgilduko gara eta, konturatu gabe, pelikulak besaulkitik pantailara eramango gaitu eta zine-aretoaren argiak piztu arte ez gara bueltatuko gure lehenengo posizioa: zinemaren magia berriro gauzatu egin da. Hirugarren identifikazio horrek zerikusi handia du filmen generoekin. Hainbat eta hainbat ikusle generoaren arabera hurbiltzen da zine-aretoetara.

Amaiera denboraldiari

Getxoko kultur etxeak kudeatzen dituen hiru zine zikloetan 75 filmetik gora pantailaratu dituzte

Maiatza amaitzeagaz batera denboraldi bukaera adierazten duen oihala jaisten dute Getxoko hiru zine zikloek: Haur zinea (domekak, 12:00, 17:00 eta 19:00), Zine-Kluba (eguztenak, 19:30) eta Cinema Paradiso (barikuak, 22:00). Getxoko kultur etxeko zine arduradun Iñaki Elorriagak jakitera eman duenez hiru zikloen artean 75 filmetik gora pantailaratu dituzte, *“urtero eta apurka-apurka euskarazko filmek harrera hobea dute”*. Osera, *“zinea etxekotzeko jarraera gero eta handiagoa da, gure prezioak merkeak izan arren”* nabarmendu du Elorriagak eta ikusleen kopuruak beherako joerari eusten diola, *“batez ere azpitu-ludun jatorrizko bertsioko filmei dagokionez, hau da, Cinema Paradisok eskaintzen dituenak”*.

«Getxo Antzokia itxi arte bertan emango dira filmak, gero gerokoak»

Cinema Paradiso zikloan 25 bat film pantailaratu dituzte eta horiek ikustera 2.100 bat lagun joan dira. Arlo horretako filmik ikusiena *Quinceañera* (Richard Glatzer eta Wash Westmoreland) izan da.

Zine-Klubaren barruan 24 bat pelikula eman dituzte eta horiek ikustera 5.580

Pedro Almodovarren *Volver* izan da filmik ikusiena

lagun inguru hurbildu ziren. Hala, ikusle gehien batu zuen lana *Volver* (Pedro Almodovar) izan da. Haur Zine zikloak 8.000 zinezale txiki batu ditu eskaini dituen 26 pelikulakaz. Horren albotik, txikienen filmik gogokoena *Garfield II* izan da. Amaitzeko, zine zikloak Getxo Antzokiko Gurea pantailan eskaintzen dira, eta antzokia zaharbertitzeko dagoen egitasmoaren ondoren aldatu egingo da. Elorriagak azaldu duenez, *“Antzokia ez da Gabonaldira arte edo itxiko, ordura arte hantxe emango ditugu filmak, aurrerantzean ez dakigu, badaude beste leku batzuk pentsatuta baina ez dago ezer zehaztuta”*. ○

Ez galdu > El violin



Hau da Francisco Vargas Quevedo zuzendari mexikarrak ekoizten duen lehenengoko luzemetraia, arakastatsua eta sari ugari jaso duen istorio hunkigarria eta erakargarria dena. Pelikula honek nazioarteko zinematodietan – Cannes, Donostia, Miami edo Huelvan – txalo zaparrada handiak jaso ditu. Pelikula gerrillari mexikar baten istorioa da. Gerrillari horren biolina arma batek duen indarra baino sakonagoa eta indartsuagoa da. Filmaren intentzioari eta helburuari buruzko Francisco Vargasen hitzak oso adierazgarriak dira: *“Ezkutaturik dagoen Mexikoren aldeko protesta da, armak hartzen dituzten itotako ahotsen aldekoa. Sinestezina da baiezatzeta hilabete baino gutxiago gelditzen dela lehendakaritzarako hauteskundeak gauzatzeko... eta gizakiaren oinarriko eskubideen gainean ez duela inork ezer ere aipatzen”*.

Getxo&Blues, ekainak 8-10

Gogoaren beheralditik jaiotako doinu gorenak Santa Eugenia plazan berriro ere



Blues Jaialdia Santa Eugenia plazara itzuliko da aurten

XIX. edizioa beteko du ekainaren 8tik 10era (21:30) Getxoko Blues jaialdiak; pasa den mendeko musikaren historian eragin handiena izan zuen generoari Getxok egingo dion 19. omenaldia izango da. XX. mendean jaio ziren musika estilo gehienek edan zuten bluesaren iturritik, esaterako jazz, rhythm&blues, rock&roll, hip-hop... Afrika mendebaldetik AEBetako hegoaldera (batez ere Mississippiko delata) eroandako esklaboen espiritualtasunetik, lanerako abestien sustraietatik, otoitzetatik, tristeziatik, gogoaren beheraldietatik sorturiko estilo disdiratsua da bluesa, eta Getxoko jaialdia urtero ahalegintzen da musika genero horren aberastasunaren estilo ezberdi-

nak gurera hurbiltzen. Blues-rockaren doinukaz emango dio hasiera Getxo&Bluesari Hash-ek (lehen Hush), Portugalen errotoetako taldea Fito&Fitipaldis edo Flying Rebollos taldeetan ibilitako musikariek osatzen dute. Euskal taldearen ostean Sherman Robertson gitarra jotzaileak hartuko du lekukoa eta *zydeco* edo *swamp blues*aren doinuak aurkeztuko ditu oholtza gainean. Jaialdiaren erdian argituko du taulagaina Buddy Guy *Chicago Blues* estiloaren aitzindari handiak, bera da aurtengo Getxo Blues jaialdiko izar argitsuena. Jaialdiari datorren urtera arte esateko ardurua Zora Young abeslariak edukiko du, gospelaren bidetik hasi eta rhythm&bluesaz gozaraziko gaituena. ○

diskoak

Kontra
Eraso
Musika/Metak



Zarazuko taldearen laugarren diskoa dugu honako hau. Metal iluna rockagaz nahasten dute, beraz estilo horietako zaleek intentsitatean lan batez gozatu ahal izango dute. Esperientziadun taldea da Eraso eta orain arte Slayer, Machine Head, Korn, Sepultura, Soziedad Alkoholika, Fomy, Strampling, Ground, Ace eta Napalm Death-gaz jo izan dute.

The very best of...
The Doors
Rhino / Elektra



The Doorsen kanturik onenak super jewel formatuan kaleratu dute, taldearen 40. urteurrenagaz bat eginez. Bilduma horretan bere klasiko guztiak edukiko ditugu entzungai, tartean: Break on through, Light my fire, L.A. Woman, Roadhouse blues eta The End. Bizirik dauden taldeko kideek nahastu dituzte abestiak, horien jatorrizko espiritua mantenduz.

Bandaband
Oskorri
Elkar



Oskorri taldea Bilboko bandagaz datorrigu oraingo honetan. Proiektu atsegin, berritzaile eta erakargarria aurkeztu zuten maiatzaren 31n, helduen zein umeen gozamenerako. 2006ko abenduan, Arriaga antzokian, Bilboko musikariak lagunduta folk banda entzutetsuak grabaturiko kantuak biltzen ditu diskoak. Udal bandaren musika moldaketak Hilario Estramianak burutu ditu.

diskoa >

Someday

Special 20 taldearen *Someday* lehenengo lana plazaratu du Gaztelupeko Hotsak disketeak. Ingelesez abestutako doinu beltzez jositako diskoa da: soinu afroamerikarrak, blues, funk, soul, swing, jazz, 30. hamarkadako musikari keinuak... Juanma Monterok (ahotsa, gitara eta letren idazlea), Jose Carlos Perezek (gitarra), Mikel Ferrerek (bateria) Rafael Fernandez-Gilek (baxua) eta Fernando Jimenezek (ahosoinua) osatzen dute Madrileko taldearen boskotea. Beti egin dio leku berezia bluesari eta “doinu beltzak” deritzanei Hotsak argitaletxeak eta oraingoan ere Special 20 taldearen lan ederra argitaratu du.

bilduma >

Musika eta herriak

Musiques et promenades en Pays Basque kanten bilduma kaleratu du Elkar disketeak: *“Iparraldeko mendi ibilaldirik gozo eta ikusgarrienak musika bilakaturik”*. Iparraldeko toponimiez izendatutako abesti bilduma dela adierazi dute Elkarretik eta *“izenburuek adierazten duten lekuaren inguruan ibilaldi samur bat proposatzen dute”*.

19 bat euroko prezioa duen lanak besteak beste hurrengo abeslari edo taldeen kantuak biltzen ditu: Imanol, Benito Lertxundi, Antton Valverde, Etxamendi eta Larralde, Pantxoa eta Peio, Erramun Martikorena, Anje Duhalde, Pier Paul Berzaitz, Jun Mari Beltran, Mixel Ducau&Caroline Phillips, Txomin Artola...

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!



T. 94 467 17 13 / F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserrria@yahoo.com

[liburuak]

Iparraldeko literatur udaberria

Maiatzek, iparraldeko literatur aldizkariak, zilarrezko ezteiak bete ditu aurten

Ezjakintasun ezkorra euskaldunaren (zer esanik ez beste hainbat gaizkileren) ahotik mintzo denean "euskarazko aldizkaririk, kazeta bereziturik ez dago; ez da inoiz egon..." bezalakoak berotzen dizkigu belarriak (eta barruak). Izan ziren: *Gernika* (1945-1953), *Euzko-Gogoa* (1950-1959), *Olerti* (1959-1995), *Pott* (1978-1980), *Oh! Euzkadi* (1979-1983), *Susa* (1980-1994), *Idatz & Mintz* (1981-2001), *Pamiela* (1983-1993), *Vladimir* (1997-2000), *Egan* (1948-...), edo *Maiatz* (1982-...) batzuk bakarrik aipatzearen; hor dira: *Nabarra*, *Argia*, *Entzun!...* eta beste hamaika, bakoitza bere jardunean; desagertuak garaiko hizkuntza, eztabaida, kultura, jakinmin... euskal historiaren adierazgarri; eta gaurkoak garenaren ispilu; batzuk aspalditik gurdia tiraka.

«**Itxaro Borda eta Luzien Etxezaharreta dira Maiatzen hazia erein zutenetako literaturgile nagusiak**»

Joan berri den hila ei da udaberriaren ekarle, eta 1981eko sasoi hartan, maiatzean, erein zuten Baiona aldean Itxaro Borda gazte ezezagun batek eta Luzien Etxezaharretak hurrengo urtean ermetuko zen



Argazkian, Itxaro Borda, *Maiatz* aldizkari sortzaileetako bat

aldizkariaren hazia, Iparraldeko literatur landare hostotsua dena, zutik dirauen *Maiatz* literatur aldizkaria. Iparraldean euskal literatur udaberria adierazi zuen (eta duen) kazetak aurten bete ditu 25 urte. "Euskarazko literatur Iparraldeko euskalkien sorkuntzak, erranaldiak eta ahozkoatasunaren aberastasunak bildu eta sustatu nahi dira. Hegoaldeko sorkuntzarekin bat egiten du eta euskara batuaren bideak beretzen ditu", helburu horregaz jaiola eta dirau *Maiatzek*. 1984tik argitaletxea ere bada, eta aldizkariaren 44 zenbakiez gainera 55 bat liburu plazaratu ditu. ○

liburuak



**Bideak, aldapak...
Juan Luis Zabala**
Elkar

Txirindulari profesionala den neba daukan neska gazte bat kirol horretan saiatzen da eta bere esperientziaren berri egunerokoaren bidez emango digu. Bere kezka eta gorabeheren inguruan jakingo dugu, baina bizitza ez da ziklismora mugatzen.



Sustrai beltzak
Jon Arretxe
Elkar

Beldurrezko 11 ipuinek osatzen dute Jon Arretxeren liburuak. Gizakiaren alderik ezkutu sinesgaitzenak eta maltzurrenak agerian utziko ditu idazle basauritarrak. Istoriak odoltsuak eta klaustrofobikoak kontatzen ditu era nahiko originalean.

[kirola]

Euskal Seleksioa bai 07 jaia

Laugarrenez jarraian antolatuko du Axpuru elkarteak jaieguna **hilaren 17an**



Axpuru elkarteko kideak

Euskal Seleksioen aldeko jaieguneko egitaraua ia itxita dauka Erandioko Axpuru elkarteak. "Lagunarteko jarduerak bat legez antolatuta gure lehenengo aldia, eta dagoeneko prestatzen dugun laugarren aldia da! Euskal seleksioen egoeraz arduratuta geunden, ez dutelako lorzen ofizial izatea. Adibidez, gurean bada sokatira talde bat Mundial batean lehiatu zena, klubean mailan Erandioko Goiberri da Munduko txapelduna! Baina seleksio moduan Espainiaren izenean jokatu behar dute... Horregatik, azken finean, hau aldarrikapen jaia da", adierazi du Jorge Martin elkartekidea.

Axpuru elkarteko 5 lagunek dihardute jaieguna antolatzen, baina egunean bertan jende gehiago hurreratzeko zaizkie eginbeharretan laguntzeko asmoz. "Gero eta jende gehiago parte hartzen du, pozik gaude; eguneko ekintza arrakastatsuen herri bazkaria da, gure asmoa kolore askotako jendea biltzea da, ekintza irekia izatea", dio Martinek. Udalaren diru-laguntza jasotzen dute eta Martinek dioenez "horregaz heldun zaigun orain ez dugu dendei-eta eskatzen ibili behar; halere, beti akordatzeko gara

eurekaz, hasieran ez zelako hain erraza izan eta haiek lagundu gintuztelako". Ekainaren 17rako prestatu duten egitarauari begira asto lasterketa da aurten berrikuntza nagusia, osterara, zehazteke zuten UK-k eurekaz berba egin zuenean.

Jaia bai, baina Martinek esan legez aldarrikapen eguna ere bada: "Espero dugu aurrerantzean ofizialtasunaren bidean pausoak ematea jai hau antolatzeko ofizialtasuna lortu dugula ospatzeko! Halere, ematen du hori nahiko urrun dagoela; Esaitzek gauzak egiten ditu, baina ematen diren pausoak oso-oso txikiak dira; eta azken aldia gertatu diren gauzekin ez dakit esperantzari zirikitu bat uzteko tarterik dagoen!" ○

Egitaraua

- 11:30 Kalejira
- 13:00 Kale animazioa (txaranga, trikita...)
- Goizean zehar umeentzako lantegi eta puzgarriak (Josu Murueta plaza)
- 15:00 Herri bazkaria Lurberri kalean (txartelak: Trabudu, Primera Linea, Herriko eta Batzoki tabernetan)
- 17:30 Asto proba

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

KANTXA
KIROL MODA



350 M²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris S.L. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Asisko Urmeneta > irudigilea

“Irudia eta hizkuntzaren arteko muga arras lausotuta dago”



Asisko Urmenetak hitzaldia eman zuen joan den hilean Astrabuduko kultur etxean

Jatorriz Iruñakoa bada ere, Iparraldeko Hozta herritxoan bizi da Asisko Urmeneta irudigilea, Behenafarroa eta Zuberoa arteko mugan hain zuzen ere. Azken aldian, komunikazioa eta irudiaren inguruan hitzaldiak ematen dabil Euskal Herrian barrena. Joan den hilean Astrabuduan harrapatu eta beragaz berbaldi atsegina eduki genuen, hizkuntza, irudia eta bizitzako beste hainbat gauzen inguruan.

—Zer egiten du hiriko seme batek mendian? Ez al da trankilegia?

—Betidanik mendian nahi nuen bizi eta duela urte batzuk aukera izan nuen Hoztan etxea erosteko. Etxea berritzeko brigada batzuk antolatu nituen lagunekin, akanpaldi “maoista” batzuen antzekoak. Ez naiz poteatzerantz irtetzen, baina egunero dago zerbait egiteko, dela alboko gaztetxean zein ondoko herrian edo festetan gaudelako. Ez da batere trankila, sobera estresantea niretzako. Agian Iruñara bueltatu beharko naiz...

—Hizkuntzalaria ala irudigilea?

—Irudigilea gehiago, baina irudia eta hitza-

ren arteko muga arras lausotuta dago. Batzuetan zaila da mugak markatzea.

—Betidanik izan nahi izan duzu irudigilea?

—Txikitan albataria izan nahi nuen, zoologiko batean. Horrelako gauza hurbila, bada-kizu: hipopotamoen odontologoa. Gero egia esan, etxean giro ona izan dut, aitzak arras ongi marratzen zuen eta. Nik ez dut mirakulurik ezagutu bizitza honetan, ez dut uste dagoenik; beraz, zerbait gustatuz gero, denbora gehiago emango duzu horrekin. Mozart oso gaztetan hasi zen bere aita musikaria zelako. 16 urterekin edo, nire lehenbiziko komiki serioa egin nuen eta or-

duan konturatu nintzen hau nirea zela.

—Berba egin dezagun hizkuntzaren inguruan. Hizkuntza formalari garrantzi handiegia ematen diogu?

—Herri tiki, zanpatu, kolonizatu eta zatikatu batean bizi gara eta horren ondorio gara gu. Lehenbiziko borroka handia batua egitea izan zen. Arras ongiatorria eta gainera behar zen momentuan egin zen, baina hiperkorrekzioari soberako garrantzia eman zaio nire ustez. Gaztelan ez diogu inori zuzentzen eta euskaraz, ordea, bai. Hizkuntzarekiko harremana aldatu behar dugu, gozatu eta

«Argota giro urbanoetan sortzen da, baina euskarak hiria galdu du»

nahi duguna ikasi. Igual gramatikari ostikoak emango zaizkio, baina zelako ebakera goxoa... Ez da bekaturik horretan.

—Ez al da gatxa euskara ez-formala formalizatzea?

—Bai. Arota normalean giro urbanoetan sortzen da. Espainiako argota nahiko aktiboa da, askoz sortzaileagoa da Frantziakoa eta are gehiago ingelesa. Azken hori baldintza politiko, militar eta historiko batzuk alde dituelako da horrela. Euskarak hiria galdu du. Zein hiri (8.000 biztanletik gora) da gaur egun euskalduna? Bizkaian eta Gipuzkoan zortzi bat herri geratzen dira. Gainera, Azpeitian erabiltzen den argota Nafarroan beharbada ez da ulertzen. Orduan, kasu horiek ikusita hizkuntzak artifizialki interbenitzaren aldekoa naiz. Gaur egun klasikotzat dauzkagun esamoldeak norbaitek asmatuko zituen; “segi antzarrak ferratzera” esaterako. Gaur egun azaldu ezaiozu zer den hori Erandioko ikasle bati. Orain, beharbada, beste bat asmatu behar dugu, beraz, guk batzuk zerrendatu ditugu. Den-dena ez dugu salbatuko, baina tira. ○

Testuak eta irudia: Xabi Bilbao

Esakere > “Alabesa edan ta bero, biskaitarra yan ta gero”

Euskaldunek ezteku ixakera aldetik berotasun fama handirik. Kanpotar askok esaten dauden lez, hasikeran beti gara isillek eta apur bet hotzak. Baia gero, denpora apur baten ostean, zabaldu egiten ei gara eta adiskidetasune ta berotasune erakusten dogu. Hori bai, gauza batzuk eta situaziño batzuk lagunduko egiten doskue ingirukok behingon lagun lez hartuten eta eurekaz kantaten bere hasten: nok ez dauz lotsak edo hotzak albo batera itxiten ardauxtu on bategaz edo janari eder baten ostean?

Esakeratxu hau I. Gilisastin “Berba lapikokoa” liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere⁹⁷**Esakera zahar batzuk**

Hizkuntza guztik daukez esakera zaharratan, metaforatan, broma moduko esatetan sarri aitetuten direzen animalik. Bakotxan herrin eta kulturen egunerokok direzen animalik ixeten direz, eta holan, esate baterako, guretzako exotikua dan pizti bat normala ixengo da Afrikako esakera baterako: *Sokak amarraten dau bufalo, eta berbak gizona*, diño Malawi-ko esakera batek.

Berbakere 67n gure hizkuntzan sarri aitetuten dan animalik bet, hegazti bet, ekarri gendun esakera batzun bitartez: *kuku*. Erraz esan leite hegaztin arten esakeratan gehien aitetuten dana dala. Lau hankako animalin arten ostera, estuago deku gauze: *asto, txakurre, sagu, azeri...* danak agertuten direz sarri esakeratan. Baia bat aukeratu dogu, sarriena ez bada hor ingirun ibiliko dalako, beti ibiltzen da eta, ingirun eta adi: *katu*.

Kualidade baten adibide modun agertuten daku batzuten *katu* esakeratan, baia ez da beti ixeten kualidade bera. Esaterako, hamen deku *katu* bizitasun handiko animalik lez:

- *Lenengotan inok alango aurpegi gogorrik, baia zuloa egin-etzkeru katu baltzok ikasten dabe bidea. Zulorik ez egitea onena!* (Mokoroa)
- *Katuak daroan okelea geiago da berea ze ez euea.* (Garate)
- *Katuak daruan sardiñari oratu egiok!* (Azkue)

Baia batzuten geldotasunen adibide egiteko erabilten da:

- *Su-ondoan banago katu zaharra legez suak amaitu bear nabela dirauste etxetarrak.* (Mokoroa).
- *Beti etorten ziran Urkiolara Dima-ko gazteak, zarraparrea ugari ebela, baña awrten katu epela baño-be motelago igaro dira.* (Mokoroa)

Siñiskeri modukok agertuten dakuz batzuten katuek lotute:

- *Katu beltza etxean, zorte ona etxean.* (Garate)
- *Katua muturra garbitzen, uria seguru.* (Garate)

Baia sarrien, geure portakeran eta izakeran ganerako adibidek emoteko erabilten da *katu*:

- (Burrukan): *Orreek txakur ta katu dagoz.* (Mokoroa)
- (Burugogorra): *Katua ikusi gure eztauenak, berak atrape dixezela xaguek.* (Garate)
- (Agoberoa): *Katu maukaria ezta eiztaria.* (Garate)

Eta danok ezetuten dogun esangure berezigaz akabako dogu:

- *Katu-katu eginda etozan basotik, aurreku-giñan gazte aldrak, illuntzean...* (Mokoroa)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES eta TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

**Errotalde ileapaindegia**

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T: 4607084

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobari 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalbokoa

Porru epelak

pernilezko binagretan

Hasteko ur gazitan porruak egosi ondo bigundu arte. Eginda daudenean baztertu. Bestetik, binagreta prestatuko dugu. Zartaginean serrano pernila tirtetan zatitua asko frijitu, hau da, pernila urreztatu arte. Pernila baztertu eta erabili dugun olio hau binagreta egiteko gorde. Piper gorria, piper berdea eta tipula (bakoitzeko kopuru bera erabili) laukitxotan zatitu eta olio eta ardao ozpinarekin ondo nahastu. Komenigarria da ozpin gutxi erabiltzea porruaren zaporea ez estaltzeko. Azkenik, porru egosiak plantxatik pasatu, gero platerean ipini, gaintetik binagreta bota eta horren guztiaren gainean pernil zati urreztatuak gehitu. On egin! ○

osagaiak (lagun birezat)

- hamar bat porru • piper gorri bat • piper berde bat
- ardao ozpina • serrano pernila



itsaso arana / jolastokikoa

Semillon

mahatsa

Frantziako mahats handien artean gurean ezezaguna da Bordeleko *semillon*. Esan bezala, Bordelen lantzen da gehien eta hobekien. Gehienetan, eta bere emaitzarik onenak lortzekotan, beste mahats batzuekin nahasturik erabiltzen da. Oso azal fin eta delikatu dauka eta horregatik erraz gaizotzen den mahatsa da, hori du kontra. Bere ezaugarriengatik eta zahartzeko daukan ahalmen ikaragarriengatik munduko ardao-gozo onenak egiten dira semilloneguz. Frantsesez *sauters* izena daukaten ardao hauek egiteko %80 semillon eta %20 sauvignon blanc proportzioa erabiltzen da. Batzuetan muscadelle mahatsa ere baliatzen da. ○



Cafe Cream

Kafe onaren gotorlekua Algortan



Argazkian, Jorge Muñoz Agirre

Urte dezente darama Jorge Muñozek Algorta aldean bizitzen eta ostalaritzarekin zerikusia duten lan ugarian parte hartu du. Bere anaiekin batera La Gramola taberna ireki zuen aspaldi. Gero, hau itxi eta bere kabuz Euskal Herria kalean dagoen Cafe Cream txokoa zabaltzera animatu zen 2003ko martxoan: *"Aire berria eman nahi nion tabernari, goizez mugitzen den jendea erakartzeko"*. Leku zabala da eta jan-edan aukera aberatsa eskaintzen du. Gainera, informazioaren gizartearen beharrei erantzuten die: *"Goiko solairuan interneten konektatzeko aukera ematen duten hiru ordenagailu daude"*.

Lokalaren izena ez da hala nola aukeratutakoa, izan ere, jabeak berak asmatutako kafe berezi baten izena da Cafe Cream: *"Likorea, esne bitza eta txokolate txarbilak ditu"*. Baina, ez da hau etxeko espezialitate bakarra. Asteko egun guztie-

tan, tabernan bertan egindako ogitartekoak eta pintxoak dituzte: *"Nire gustukoena foie-grasa eta aspizuna dira"*. Bestalde, eguna ondo hasteko, kalitate handiko gosariak prestatzen dituzte: *"Opilak hemen egindakoak dira"*. Gauza berriak eskaintzen saiatzen da Jorge eta horretarako han eta hemen kuxkuxeatzen ibiltzen da: *"Oso gustuko dut nire lana"*.

Bariku eta zapatuetan ordu biak arte zabalitzen dute gauz eta giro polita sortzen da: *"Argi dago Artea merkatal-guneak eta Algortan aparkalekuarekin dagoen anuzoak min handia egiten digula, baina hala ere, inguru honetan giro polita sortzen da"*. Domeketan aldiz: *"Jai hartzen dugu, bezeroen onenako"*. ○

Euskal Herria 2, ALGORTA
Tel.: 94 460 12 05



ARTAZA ETXEA
jaketxea
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina. Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asador Goieztzi



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak normberaren gustura
 - Egunero karta berezia
 - Gauz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
 - Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUAZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztaietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA
galdaretxe

- Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
- Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
- Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
- Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
- Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) Aldizkarietara jo ohi duzu aspaldi honetan. Zeren bila? Hori da zeuk asmatu behar duzuna. Baina entzun arretaz: aldizkarietan ez duzu aurkituko zuk nahi duzun hori, kalean baizik, egunerokotasunean.</p>	<p>OTSOA</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Loreak udan ihintza bezela, maite det dama gazte bat..., horrela dio kantik eta horrela dio zeure bihotzak ere, ezta? Dama dagoen lekuan beste edozer jar daiteke: zaldun, emakume... eta gazteren orde ez ere, zahar...</p>	<p>ADARRA</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Orrazkera berriaz erabat aldatuta zaude. Ikusten da zure itxura zahararekin nazkatua zinela eta moldeak apurtzen ausartu zarela. Zoritxarrez, ez dirudi ligatzeko balioko dizunik.</p>
<p>AITZURRA</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Siestaxoa egiteak on egiten dizula badakigu, baina, motel, bizitza ohean egitea ere! Alperrontzi ederra egina zaude, eta oraindik nekatuta zaudela esateko ausardia daukazu? Ez dut gura pentsatu urte batzuk barru...</p>	<p>HOSTOA</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Iraganeko oroitzapen gogorrak bazterreza lortu duzu eta zure ingurukoek ematen dizuren maitasuna eta laguntasuna gozaten ari zara orain. Zure alderik onena ateratzen ari da eta indarrez gainera.</p>	<p>EGUZKIA</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Zure lagunek zugana jotzen dute euren arazoak konpontzen lagun ditzazun. Zure pentsaera praktikoak asko egin dezake euren alde. Aurrerago garatu ahal izango dituzun ideia bikainak.</p>
<p>GARIA</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) Olioz bustitako gauzak eskuen artean izatea ez da batera erraza. Zeu ere horrelakoa zara, labankorra, iheskorra, aingirak bezalakoa. Ez duzu inor zure ondoan ikusi nahi eta beti ezkututzen saiatzen zara.</p>	<p>LASTOA</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Lasaitasuna behar duzu. Emozio handi horien atzetik ibiltzek ez zaitu inora eramango eta, okerrago dena, ez dizu ezer onik ekarriko, akaso disgusturen bat. Hurbil daukazanari arreta gehiago.</p>	<p>IRATZEA</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Ez zara konturatzen baina bada zure atetik dabilen pertsona bat. Hortik harreman erromantikoa abia daiteke, baina halaxe gerta dadin zure berarekiko jarrera hotza aldatu beharko zenuke.</p>
<p>META</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Jende multzoek eta zalapartek nekatzen zaituzte eta horregatik lasaitasun bila zabilta orain, sarritan bakardadea. Indarberitu behar duzu zeure burua, baina kontuz: ez ahaztu zure inguruko lagunak.</p>	<p>HAZIA</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Lanpetuta, baina oso lanpetuta ibiliko zara eta horregatik lan mailan aurrera egiteko aukera izango duzu. Hala ere, arrakasta ekonomiko hori inor mindu barik lortzen saiatu beharko zenuke.</p>	<p>NEGUA</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Asteburuko bidaia batean pertsona ezezagun batekin egingo duzu topo, bion arteko erakargarritasuna handia izango da eta ezkondu egingo zarete. Ez dakit zori ondu zaitudan ala doluminak eman...</p>


mungia
OKINdegia



Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

HITZ GURUTZATUAK

1										
2										
3										
4										
5										
6										
7										
8										
9										
10										

Ezker eskuin

1. Lapurdiko kostakoa. 2. Bizk., hari mota. Ipar Euskal Herrian, lau. 3. Sartu aditzaren oina. Israelgo erregea, Jezabelen senarra. Kontsonantea. 4. Kide egin. Ate, hitz elkarteetan. 5. Pirineoetako gailur gorena. Hertsia. 6. Izkiriatale. Idi, hitz elkarteetan. 7. Musika nota. Itzez lotu. 8. Espainiarren EHNA. Lehena eta azkena. Atzizkia. 9. Bizk., bike. Abisuak. 10. Ahuntzaren ar. Hari, nuke.

Goitik behera

1. Adinaren poderioz hondatua. 2. Hemendik aurrera. 3. Laborarien tresna. Iodoaren ikurra. Bokala. 4. Euskal fonema. 48 ordu baru. (Zah.) Zakur. 5. Musulman xiiten erlijio-buruzagi nagusia. 6. Kontsonantea. (Errep.) Txori mota. Zeharean jari. 7. Gabarra txikia. Joan den urtean. Nori atzizkia. 8. Marokoko hiriburua. Ibar. 9. Rutenioaren ikurra. Hegazti umeak. 10. Ipar., alaitu. Suari dario.

Soluzioak

E	K	O	I	N	R	E	K	A	V
K	V	R	V	H	O	I	U		
O	R	Z	V	I	N	D			
U	T	Z	T	L	I	V	L		
T	I	A	E	L	Z	V	D		
I	X	T	I	O	T	E	N	V	
V	A	T	U	T	E	D	I	K	
R	B	A	K	A	R	S	V	S	
R	U	L	A	Z	V	A	R	A	
V	R	A	T	V	T	S	O	K	

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Idazlea eta Hiru argitaletxearen arduraduna
- Bizitza osoa giza eskubideen alde borrokan eman du
- Hil berri da

> Aurrekoaren erantzuna: Andoni Egaña
> Irabazlea: **Itxaso Maseda***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

Usategi kafetegia



Usategi parkea z/g, Algorta
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



JOSE IGNACIO MADARIAGAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Algortako ehiztariak Burgosen, 1967an

Hona hemen Algortako (gehienak dira algortarrak, guzti-guztiak ez) lagunarte bat Burgos aldean, galeperren sasoiari, udaldian. Agesen zeukaten ehiza-esparrua, bertako udalari alokatuta. Alokairua urte osorako izaten zen, etxea (atzealdean ikus daitekeena) barne. Eta urte askoan joan ziren horrela. Ez zeukan etxeak erosotasun askorik baina bizitzeko modukoa zen; gainera pribilegiatuak ziren, herriko telefono publiko bakarra bertan zegoen eta.

Pozik agertzen dira ehiztariak argazkiaren erdi-erdian galeper-sorta ederra erakutsiz. Txakur bat baino ez da ikusten, halere, askoz gehiago ziren, hogeit inguru erooten zituzten. ○

Zutunik: Herriko guardia zibil baten semea, Karmel Ariño (GB), Sabin Intxausti, Roberto Mardaras (GB), Pascual Murueta (GB), Juan Manuel Mardaras (GB), Fede (GB), ?.

Makurtuta: Cele Madariaga "Dick" bere txakurrarekin (GB), Pedrito Maguregi, ?, ?, Pablo Mancisidor (GB)

Eserita: Sabino Intxausti, Andres Arteta (GB), Andoni Ariño, Sandra Intxausti (umetxoa).

ARKAITZ GARTZIANDIA > aktorea

“Hegoak edukitzea gustatuko litzaidake, txorien antzera ibiltzea”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Idealista eta maitekorra.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Gandhi. Lan polita egin zuen; indarkeria erabili gabe borroka asko irabaztea lortu zuen.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Oso desordenatua naiz.

Aitor dezakezun bizio bat.

Txokolatea.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzazuke jardutea?

Pilotua. Abiadura eta hegan egitea oso gustuko ditut. Egia esan, hegoak edukitzea gustatuko litzaidake, txorien antzera ibiltzea.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Done Jakue bidea. Bizikletaz egin nuen; kirola egiteaz gain abentura txiki bat bizitzeko aukera eman zidan.

Zein da zure ametsetako bat?

Aktorea izaten jarraitzea eta horretaz bizi ahal izatea.

Goiza ala gaua?

Goiza. Egun hasiera dakar eta egun guztia daukat aurretik.

Ikusi duzun azken filma?

La vida de los otros. Asko gustatu zait; izugarria da pentsatzea zuk bizitza normala egiten zaudenean norbait zelatzen egon daitekeela.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?

Ez dago beharrezkoa den ezer. Uste dut ezer gabe bizitzeko gai gara.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Lakuntza, nire aitaren jaioterria. Toki lasaia, mendi artean... oso berezia. ○

ESKERRAK NORMA-IRUDI HAUEK JARRI DITUZTEN SALTOKIARI

ARRANDEGIARI:

Bacalao Iturbe * Marharomo Pascaderia * Molano Arrandegia * Pascaderia Araya * Pascaderia Ana * Pascaderia Antonio * Pascaderia Ganabo * Pascaderia Marcos * Pascaderia Madariaga * Pascaderia Urdiola * Pascaderia Itxaso * Pascados Eider * La Batena Itxaskiak

HAZATEGIARI:

Biderzabal Harategia * Carniceria Albi * Carniceria Charuteria Barroa * Carniceria Gabiria * Carniceria Jose * Carniceria Jose Luis * Carniceria Monardero * Carniceria Oscar y Ana * Carniceria Salazar Charuteria * Carniceria Sebas Harategia * Carniceria Madariaga * Carniceria Urgoitia * Carniceria Urrutia * Charuteria Aizondo * Charuteria Quiseria Delgado * Felipe Sebastian * Jose Mari Harategia * Jauenera * J. C. Portero Carniceria * Jon Harategia * Juan Mari * Konfite Urdaitegia * Moruillas Madariaga * Galera * Teñilin Harategi Urdaitegia

IARATEGIAN ere euskaraz

- 1. Hakea
- 2. Txerria
- 3. Txanokoa
- 4. Txanokoa
- 5. Txanokoa
- 6. Txanokoa
- 7. Txanokoa
- 8. Txanokoa
- 9. Txanokoa
- 10. Txanokoa

ARRANDEGIAN ere euskaraz

- 1. Txanokoa
- 2. Txanokoa
- 3. Txanokoa
- 4. Txanokoa
- 5. Txanokoa
- 6. Txanokoa
- 7. Txanokoa
- 8. Txanokoa
- 9. Txanokoa
- 10. Txanokoa



LABURREAN— Oso gazte zela hasi zen Arkaitz Gartziandia oreretarra Zurriolako Antzerki Eskolan. Bere lehenengo esperientzia profesionala ETB1eko *Ikusgela* saioan izan zen. Hartatik, proiektu askotan parte hartu du telebistan, zinean eta antzerkian. Gaur egun, *Goenkale* telesailean “Markel” nerabe errebeldearen papera egiten du. Horrez gain, izen handiko aktore eta zuzendariekin bi film prestatzen ari da: batetik, Diego Zandosen *Cosmos*, bakardade-ari buruzko hausnarketa baikorra; bestetik, *La casa de mi padre*, Emma Suarez eta Juan Jose Ballesta aktore eza-gunekin. Antzerkian ere lan garrantzitsuak egin ditu. Aktore lana ikasketekin uztartzeko denbora izan du 23 urteko gazteak. Izan ere, Filosofia ikasi du EHUn eta gaur egun Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasten dabil. Deskantsurako astirik ez daukan arren, gustura dago, antzerkiak bizitzeko energia ematen dio-eta.



informazio gehiago nahi baduzu gero,
daitu autobusa zerbitzura:
94 466 00 10-11 telefonoz
autobusa.tbakaria@getxonet